

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



BIZITZAK ERDIGUNEAN

Bizigarriak diren bizitza duinen alde

Greba feminista orokorra egiturazkoak izanen liratekeen aldaketak marrazten eta artikulatzen hasteko baliatu du mugimendu feministak. "Pedagogia feministan sakontzen jarraituko dugu gizarte hau errotik aldatzeko. Gaurko eguna mugarri bezala ulertu behar dugu guztiontzat bizigarria izango den gizarte eredu eraikitzeke prozesuan". Sakanan hainbat mobilizazio egin ziren "zaintza lanen demokratizazioa eta euskal sistema publiko komunitarioa eraikitzeke nahia adierazteko". Herrietan zabalduzako ideietako batzuk hemen jaso ditugu



IRURTZUN-ARAKIL Emakumeak* gara bizitzari eusten diogunak eta oso modu desperekatuan egiten dugu. UTZITAKOIA



IRURTZUN Gaur egungo zaintza erregimena bidegabekoa eta desorekatua da. LAB SINDIKATUA



ALTSASU Zaintza, bizitzaren jasagarritasunaren oinarria da". LAB SINDIKATUA



URDIAIN Familia heteropatriarkala erdigunean jartzen duten politikak erabiltzen ari dira.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak


www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





UHARTE ARAKIL Zaintza kasu gehienetan enpresa pribatuen esku utzi dute eta horrek prekarizazio zuzena ekarri du. UTZITAKOIA



ALTSASU Zaintza lanak erabat feminizatuta eta arrazializatuta daude. UTZITAKOIA



ETXARRI ARANATZ Emakumeen lan gehiena ez dago ordainduta eta ikusezina da.



ARBIZU Gizarte zerbitzuek sare eskasa dute eta transferentzia ekonomiko gutxi daude. UTZITAKOIA



IRURTZUN Emakumeengan delegatzen da zaintza lana. UTZITAKOIA



ALTSASU Etxeko zerbitzuetako lanek prekarietateak dakarte.



IRURTZUN Zaintzak duen lan izaera ez da onartzen. UTZITAKOIA



ETXARRI ARANATZ Etxeko langile gisa jarduten duten emakumeak egoera irregular eta zaurgarrian jartzen dituzte instituzioek.



BAKAIKU Zainduak izateko eskubidea dugu guztiok, baina baita zaintzeko erantzukizuna ere. UTZITAKOA

Zaintza, bizimodu duina eraikitzeko


Zaintza eskubide kolektiboaren aldarrikapena ozenki entzun zen Sakanan atzo. Estreinakoz greba feminista orokorra egin zen. Haren bidez Euskal Herriko mugimendu feministaren helburua zen "zaintzaren arlo guztiak problematizatzea eta berrantolatzea, zaintza familiako kontua eta pribatizatua izateari uzteko" exijitu zuten, egungo sistema auzitan jarritz.

Sakanako herrietan egun osoko mobilizazioen ondoren, Altsasuk eskualdeko manifestazioa hartu zuen. Haren akaberan ibarreko feministek nabarmendu zuten "zaintza bizimodu duina eraikitzeko oinarria" dela, "zaintzarik gabe ez baitago bizitza duinik". Azpimarratu zuten, "zaintza, errekonozimendurik ez duen lana da eta Euskal Herrian badakigu zaintzarako zerbitzuak gero eta pribatizatuagoak eta prekarizatuagoak daudela. Horiek guztiak gainera, genero, arraza, klase sozial, eta jatorri jakin batzuen aurpegiak dituzte".

Mugimendu feministak ibarreko zaintzaren errealitatearen argazki gordina egin zuen: "Sakanan jakin badakigu zeinek zaintzen dizkigun txikiak guk ezin dugunean; zenbat kide ezin izan duten greba egin gutxieneko zerbitzuetan daudelako, nahiz eta gutxieneko zerbitzu horiek egunerokoak izan; badakigu nork antolatzen dituen familiako kideak aitona-amonak zaintzeko eta, ondoren, zer-nolako baldintzapean, eta zer-nolako jatorriko zainzailea kontratatuko den..." Ibarreko ekonomiari ere erreparatu zion mugimendu feministak: "Sakana Nafarroako soldata arrakalarik handiena duen eskualdea da. Gizonezko gehienak metalgintzan lan egiten duten bitartean, emakumezkoak prekarizatutako zerbitzuetan, zaintzetan edota Sakanatik kanpo bizitzera kondenatzen gaituzte". Egoerak ezin duela "horrela jarraitu" nabarmendu zuten. "Sakanan bizi, ikasi, lan eta elkarren artean zaindu nahi dugu", adierazi zuten.

Ibarretik begirada jaso eta honako panorama ikusten du Sakanako mugimendu feministak: "sistema kolonial, arrazista, kapitalista eta zisheteropatriarkala". Eredu horri alternatiba gisa "zaintza eskubide unibertsal izendatuko dugu, eta zaintza sistema publiko komunitarioaren alde egingo dugu. Horretarako, ezinbestekoa da ardura kolektiboa hartzea, bai gure komunitatearena, bai erakunde publikoena ere".

Atzoko grebarekin "Historia egin" izanaren sentipena zuten mugimendu feministako kideek. Gogorarazi zuenez, "Denon bizitzak erdigunean dinamikaren bitartez zaintza sistemari begira jarri zigun Euskal Herriko mugimendu feministak. Prestaketa luzea eta emankorra izan da, eta horren emaitzetako bat gaurko eguna da". Mobilizazioan posible egin duten guztiak zoriondu zituzten. Eta manifestazioaren ondoren, Gure Etxea eraikinean edari beroen laguntzaz iritzi trukean bukatu zuten mobilizazio eguna. Mikrofono irekia hartu eta iritzia eman zuenik ere izan zen bitarte horretan.



ETXARRI ARANATZ Zaintzaren kontzepzioa eta eredu aldaketak egungo jendarte antolamendua eraldatzea dakar.



URDIAIN Zaintza eraldaketa sozialerako bultzada da.



IRURTZUN Zaintzak potentzial politiko izugarria du. *UTZITAKOIA*



UHARTE ARAKIL Etxeko lanak ez dira parekatzen, inondik inora. *UTZITAKOIA*



ALTSASU Zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatu behar dugu



ALTSASU Sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak guztion eskura egon behar dira.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Erredakzioa atzo 16:00etan itxi zen, arratsaldeko mobilizazioak egin aurretik.

Eskualdeko manifestazioaren argazkiak guaixe.eus-en

Pazientea erdigunean

Josefina Arregi klinikan pazientean zentratutako atentzioa eskaintzen dute, beraz, sekula ez dituzte bi paziente berdin tratatuko. Horretan trebatuta daude langileak. Haiek lantokian eta handik kanpo egindako zaintzez aritu dira ospitaleko bi langile

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Kontxi Claver Cava erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria da, eta Susana Cid Merino erizaina. Biek Josefina Arregi klinikan lan egiten dute, ospitale gunean. 27 eta 20 urteko eskarmentua dute. Klinikako Enpresa Batzordeak atzoko greba feminista orokorrarekin bat egin zuten, baina langileek ezin izan zuten grebarik egin, "Iruñetik jartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak dugun lanaldia da", beraz,

zaintza lanetan segi behar izan zuten.

Klinikako ospitalean sartzen diren pazienteek "oinarrian, guztiek demenziaren bat dute", zehaztu du Cidek. "Gurera iristen direnerako da duten jokaera nahasmenduagatik etxean ezin dituztela egoki gobernatu; haiekin bizitzea zaila delako", gaineratu du Claverrek.

Gaixoen klinikako gutxieneko egonaldia bi astetako da. Pazientea ingresatua dagoen bitartean hartaz arduratzen dena "nagusiki emakumezkoak dira, baina badira asko arduratzen diren senar edo semeak". Klinika sortu zuen Felipe Lezearen hasierako as-

moa gogoratu eta ospitalearen berezitasuna nabarmendu du Claverrek: "pazientearendako da, baita familiak atsedena hartzeko ere. Ez da ohiko ospitale bat zeinetan pazienteak lagunduta egon behar duen. Senideek programatutako bisitak dituzte, ezin da nahi denean etorri. Gaua ezin dute bertan pasa. Gaixo batzuei ez die onik egiten bisitak, nahastu eta etxera joan nahi izaten dute".

Lehen Arretako medikuek bideratzen dituzte gaixoak klinikara. Nafarroa guztiko gaixoak hartzen dituzte. "Sakanarako bakarrik balitz, luxua litzateke", aitortu du Claverrek. Ospitalea heldu den urtean handitu eginen dute hamar ohe gehiago hartzeko, 31 guztira. Handitzearekin

langile gehiago izanen direla espero dute.

Baldintzez

Lantoki feminizatu batean lan egiten dute. 60 bat langileetatik gizonetzkoak dira laguntzaile bat, erizain bat, bi fisioterapeuta, bi mediku eta kudeatzailea. "Orain bezala ez gara sekula egon", aitortu dute. Langile guztiak ez dira lanaldi osoan aritzen. "Sekula ez dugu arazorik izan lanaldia murrizteko umeen edo adinekoren zaintzagatik, edo adinagatik edo lesioa izan eta lanaldia murrizteko", azaldu du Cidek.

Sakana Saria jaso zuen klinikako ordezkari batzuek azaroaren 23an, eta hurrengo egunean eguneko zentroa mustu zuten. Klinikak hainbat egitasmo ditu etorkizunera begira. Baina garai latzak bizi izan ditu, ixteko arriskua ere izan zen duela hamarkada bat. "Damoklesen ezpata beti hor izan dugu; gobernuak hitzarmena murrizten zigula...", esan du Cidek. Biek argi eta garbi dute klinikaren eta haien lan bitzita beste batzuk lirakeela

"LANTOKI FEMINIZATU BATEAN LAN EGITEN DUTE. 60 LANGILEETATIK GIZONEZKOAK ZAZPI DIRA"

Iruñean balego, eta ez Altsasun, landa eremuan.

Claverrek gaineratu duenez, "lehen ziurgabetasun handiagoa genuen. Kudeatzaile honekin, badirudi bagoazela; segurtasun eta egonkortasun gehiago dagoela dirudi". Gogoratu duenez, "pandemia garaian osasun publikoak erizain guztiak eramaten zituen. Guri hiriburura lan egitera joatea ez zaigu kostatzen, baina hirikoei herrietara lanera joatea, bai. Edozein ez da hona lanera etortzen. Oso baliagarriak ziren lankideak izan ditugu, baina Iruñean lana sortuz gero joaten ziren". Claverrek gaineratu duenez, langile errotazio "hori klinikarendako arazo bat da". Horregatik sektore publikoko soldata bera jarri zieten erizainei. Azaldu duenez, "kudeatzailearen epe luzeko helburua da sektore publikoan ari direnen baldintzeta hurbiltzea gureak. Guk hori lortzeko presio egiten dugu. Lan handia dago egiteko, gauza asko moldatu, aldatu eta hobetu behar dira, esaterako: lanaldiak, oporren antolakuntza...", gaineratu du Cidek. Jarrera ona ikusten dute klinikan, baina baliabideak falta dira.

Claverrek gogoan duenez, "hasieran maila profesionalean, eskubideen arloan eta guztietan nola edo hala ikasten gindoazen. Hasieran ez genuen lan hitzar-



*Gorde zerbaki hau

"Langile gehiago dugu, baita lan gehiago ere"

ISABEL GRACIA LARRAYA AITA BARANDIARAN ADINDUEN EGOITZAKO ZAINTZAILEA

Nafarroan dauden 72 adineko egoitzetatik bi besterik ez dira publikoak. Eta horietako bat da Altsasuko Udalaren Aita Barandiaran adinekoen egoitza. Udalak Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena du. Egoitzako hoge langileetatik hemezortzi emakumezkoak dira, zainzaile bat eta mantentze lanaz arduratzen dena dira gizonetzko bakarrak. Haien lanaldiak gutxieneko zerbitzuak ere badirenez, ez zuten grebarik egiteko aukerarik izan.

Zein motatako pertsonak daude egoitzan?

Denetarik, nahikoa nahasketa dago. Gutxienekoa ongi dago eta hotel batean baleude bezala bizi dira, nahi dutenean sartu eta ateratzen dira. Baina hainbat mendekotasun maila duten asko daude, gainera nahasketa nahikoa dago. Batzuk, esaterako, bakarrik zutitzen, esertzen edo etzaten dira. Beste batzuk halakoak egiteko

ere laguntza behar dute. Demenziaren bat dutenak ere badaude.

Hala izan da beti?

Bai. Baina gero eta gehiago nahasten ari da. Denak batera daude eta batzuk besteak molestatzen dituzte. Ongi dagoenak demenzia duenaren jokaera jasan behar du.

Nafarroako Gobernuak adinduen egoitzak aldatzeko plana du eskuartean. Badakizue zerbait?

Egoitzak banatu eta komunitate modukoak sortu nahi dituzte. Haietan antzeko egoera duten egoiliarak batu nahi dituzte. Gureak ez du betetzen, lan handiak egin beharko lirakeke.

Langileei dagokienez, zer dio planak?

Entzun dugunaz aparte, bileraren bat eta hitzaldiren bat izan dugu. Baina iruditzen zaigu teoriatik asko eta praktikatik gutxi duela. Egingarria ez den teoria asko dago

nire ustez. Esaterako, esaten dute pertsonak ez lotzeko. Baina guk badakigu batzuk erori egingen direla. Halakoak gertatzen zaizkigu, eta oso gaizki pasatzen dugu. Guk ez dugu haiek erortzea nahi. Ezin badiegu eutsi, nola egingen dugu? Ez gaude langile bat egoiliar bakoitzeko. Edo langile askoz gehiago jartzen dute, edo egoiliar bakoitzeko langile ratioak aldatu eta pila handitzen dituzte. Bestela, buruan dutena ez da egingarria. Zeren gu iristen garenera iristen gara, ezin dugu gehiago egin. Gogoan izan lan egiten dugu, baina ez gara guztira iristen. Gehiago eta hobeki lan egin nahiko genuke.

Zenbat aritzen zarete zaintzen?

Goizeko eta arratsaldeko lan txandetan bost zainzaile gaude lanean, eta gauekoan bi. Asteko egun guztietan dozena bat zainzaile aritzen gara lanean. Goiz eta arratsaldean erizain bana aritzen dira. Pandemiarekin



ISABEL GRACIA LARRAYA

"EGOILIAR BAKOITZEKO LANGILE RATIOAK ALDATU ETA PILA HANDITU BEHAR DIRA"

menik. 'Diru sail bat aterako dugu, hurrena langileendako'. Ez zen sekula iristen. Ez ditugu Iruñean dituzten lan baldintzak, oso motel aurrera egiten ari gara". Bi langileek kontuan hartzen dituzte ere bokazioa, eta lanera oinez joan ahal izatea. Lan hitzarmena berritzeko negoziazio betean daude klinikan gaur egun.

Kontziliazioaz

Amatasuna edo senideen zaintza ere bada klinikako langileen errealitatea. Arlo horretan sekula ez dute arazorik izan bajak edo baimen egunak hartzeko, edo lan txandak aldatzeko. Azaldu dutenez, "laneko bajagatik %100eko soldata jasotzen dugu, baina gaitasunagatik bada, ez". Gaineratu dutenez, "langileriaren ongizateaz arduratzen dira". Haiek zein zaintzen dituen galdetuta, "gu geu" erantzun dute.

Argi du Claverrek: "kontziliazioarena seme-alabarik ez duen bakarren batek asmatu du. Oso zaila baita. Eta hori nik lanaldi murriztua izan nuela. Eta lanaldia murrizteko aukera ere izan behar duzu, edonork ezin duela egin. Azkenean, zaintza lan hori egiteko norengana jotzen duzu: aiton-amonengana". Aldaketa ere izan dela nabarmendu du Claverrek: "alaba izan nuenean, aita jubilatuta berri zen eta alaba gurditxoan hartu eta paseatzen



Susana Cid Merino eta Kontxi Claver Cava.

zuen. Nire amak esan zuenez, gure aitak bere alabekin hori ez zuen sekula egin. Lanean zegoen. Egungo aitek ere zaintzan aritzen dira. Pixkanaka pausoak ematen ari dira, baina egiteko asko dago oraindik". Gertatu zaie bikotea eta bera lan txanda desberdinetan egotea eta justu-justu elkar ikustea. "Baliabideak falta dira", ziurtatu du Claverrek. "Haur eskolek dirua balio dute, denek ezin dute ordaindu".

Anaiak beti goizez lan egiten duenez, Cid arratsaldean lan egiten ahalegintzen da, biak goizez ez egiteko eta hala ama zaindu ahal izateko. "Makiltxo magiko bat izanez gero, niretako egokiena beti astegunetan arratsaldean edo gauetan lan egitea litzateke, eta asteburutan, goizez".

"Beti dago norbait kontratatze-ko aukera. Baina zein baldintzatan? Gu lanean baldintzak aldarrikatzen eta etxean norbaiti

beltzean ordaintzen?" galdetu du Claverrek. Eta Cidek erantzun: "norbait kontratatzen baduzu, ongi egin behar duzu, eskubide guztiak. Baina hipoteka eta bestelakoak ordaindu behar badira, ez da hain erraza kontua. Ez da iristen. Baina kontratatutakoaren kotizazioa ordaindu behar da, ez dago beste biderik".

Gaineratu duenez, "laguntza lortzeko ezin iritsi dauden horietako askoren aukera da haiek

beraiek etxean zaintzen gelditzea. Baina gaitza horiekin, ez dakizu. 24 orduko zaintza behar duten pertsonak dira, ezin dira bakarrik gelditu. Baina organikoki ongi badaude, egoera luzatzen da eta familiarekin buka dezake. Familia batzuek esan izan digute: 'oso batua egon den familia bat izan gara. Baina jada ezin dugu gehiago. Anaiak alabekin egitekoak ditu, besteak...' Luze jotzen duten egoerak dira".

Berdintasun plana

Gobernuak ezarria du 50 langile baino gehiago dituzten lantokietan berdintasun plana izan behar dela. Berdintasun Batzordea sortu dute. Bertan enpresa batzordeko bi kide, erizainen burua eta giza baliabideen arduraduna daude. Aholkulari baten laguntzaz ari dira berdintasun plana egiten. Besteak beste, sexu jazarpenaren kontrako protokoloa du. Lanketan urte bat inguru daramate. Bitartean batzordeko kideak trebatzen ari dira. Izan ere, jazarpen kasuren bat balego batzordeak ikertu beharko luke.

"KONTZILIAZIOARENA SEME-ALABARIK EZ DUEN BAKARREN BATEK ASMATU DU"

lana egiteko modua aldatu zen, baita beharrak handitu ere. Gorriak ikusi genituen. Baina egin genuen lanarekin pozik gaude. Orduan bi zaintzaile gehiago jarri zituzten. Eta biek jarraitzen dute, beharrezkoa baita. Baina oraindik ere zaintzaile gehiago beharrezkoak dira.

Lanaldi osoan lan egiten duzue?

Pandemiaren ondoren, bai, lanaldi osoa jarri ziguten guztiei. Ordura arte laguntza gisa pertsona bat 07:00etatik 10:00etara aritzen zen. Baina lan gehiago egitea ere eskatu zaigu. Gainera, egoiliarrek mendekotasun handiagoa dutenez, lan handiagoa dugu. Beti behar da jende gehiago. Legedian jasotakoa beteko da, baina guretako ez da nahikoa. Teoriatik praktikara aldea dago.

Baliabide gehiago behar dira?

Dagoenarekin moldatu beharra duzu. Egoitzatik etengabe bueltaka ibiltzen gara. Beti bezala, ibili, lan egin eta argi ibili. Beti gaitzaren kontra lan egiten, batera eta bestera laster egiten.

Gobernuarekin sinatutako hitzarmena aldatzen ez bada, langile gehiago kontrata daitezke?

Ez. Baina soldatak ere igo beharko liriateke, mileuristak baikara. Duela bi urte bukatu zen lan hitzarmena, eta soldatak izoztuta ditugu. Gauetan eta jai egunetan lan egiteagatik ordaintzen digutena oso gutxi da. Eta bitartean guztia garestitu egin da. Soldatak eguneratu behar dira. Bada emakumezkoen lana aitortzeko garaia.

Administrazioan langileen kontratazioaren behin behinekotasuna murrizteko eta lanpostuak egonkortzeko prozesuak eragin dizue?

Bai, behin behineko langileak gara. Azterketa batzuk egin genituen, euskara eta beste proba batzuk. Emaitzen zain gaude. Udalak emaitzen berri emateko 2024 urte guztia du eta ez digu ezer ez esaten. Bitartean egoitzan oso giro arraroa dago. Jendea oso urduri dago. Kaleratuz gero, beste lanen bat bilatu nahi duzulako. Gainera, adin bat dugunez, lana opatzea zaila izanzen zaigu. Bestalde, euskara dakitelako plaza lortu dutenak daude, gaztetxoak dira. Haiek ere jakin nahi dute lanpostua lortu duten edo ez. Bitartean beste nonbaiten bilatu behar dute

lanpostua. Egoera gogorra bizitzen ari gara, ez dugu ikusten udala inplikatzeko denik. Lehen legegintzaldia bukatzeaz zelako, orain legegintzaldia hasi berria delako, ez digute batere ez esaten. Bitartean tentsio handiarekin lanean segitzen dugu.

Lanean zaintzen. Eta etxean?

Han ere lan egin beharra dago. Guztion artean lana partekatzen saiatzen gara. Baina emakumezkoak beti lan gehiago egiten dugu. Lankide guztiek egoera bera dugu.

Gaitzen bazara, zer gertatzen da?

Askotan pasatzen da. Egoiliarrek katarroa, gripea edo beherakoak badituzte, guk dena hartzen dugu. Gu ordezkatzeko gutxi daude. Etxean gelditu behar badugu, geure burua zaintzen dugu. Bestela, botika hartu eta lanera. Gero eta zaharragoa den plantilla bat gara. Eta errelebo gutxi dago.

Egoitzan daudenak zergatik zaintzen dituzue zuek, eta ez beste norbaitek?

Pentsatzen dut haien etxeak ez dituztela beharrezko baldintzak betetzen. Eta iristen da une bat senideek ezin dutela artatu. Hala ikusten dugu, oso zaila delako. Eguneko 24

orduko zaintza behar badute...

Emakumezkoek eta gizonezkoek lan egiten dugu gaur egun, eta ezin dituzu behar bezala artatu. Horretarako daude adinekoen egoitzak.

Egoitza bakarrarekin nahikoa da?

Ez, Sakanan besteren bat egon beharko luke. Eskaera handia dago eta itxaron zerranda dago egoitzan sartzeko. Etxetik zuzenean gutxi heldu zaizkigu. Sakandar asko Nafarroako beste egoitzetan daude eta lekualdaketa egiteko lehentasun gisa familiarik gertuen dagoen egoitza eskatzen du.

Gobernuaren ideia da jendea etxean ahalik eta gehien mantentzea.

Baina horretarako etxez etxeko zerbitzu gehiago egon behar dute. Etxez etxeko zerbitzuan lan egiten dutenek esaten digute gutxi direla eta gaizki dabilzala.

Zuek zaintzen dituzuenen jarraipena egiteaz, bisita egiteaz zein arduratzen da?

Tutore bat izaten dute, arreba edo ahizparen bat, alabaren bat... Orokorrean, emakumezkoak izaten dira.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Zer demontre egin genero indarkeriarekin?

Berriki genero indarkeriaren aurkako eguna ospatu dugu. Azken boladan asko entzun dugu honi buruz, tamalez, baita arazo soziala den honentzat proposatutako ebazpen judizialaren inguruan ere. Zigorrek gehitu ala gutxitu, horrek soluzioa ekarriko balu. Alabaina, lortzen al dute kartzela zigorrek indarkeriaren jaitsiera?

Batetik, jendea kartzelaratzeko horrek arazoa banakatzen du, ezin baitugu ahaztu genero indarkeria sozialki ezarritako arauetaz hornitzen dela. Ala, ez al dute gizonezko horiek gizartean jasotako ikasketak martxan jartzen baino ez? Gainera, arintasunez egindako epaiketa horrek kartzelaren ondorioetatik urruntzen gaitu, preso nahiz familiarentzako sufrimendua alde batera utziz. Beldurrezko urruntasun emozionala eta gizatasun galtze prozesua honakoa.

Bestetik, zer gertatzen da biktimekin? Sistema judizialaren jokaerak emakumeak gainbabestu, biktimizatu eta baliogabetzen ditu. Are gehiago, ez ditu hauek entzuten.

ALABAINA, LORTZEN AL DUTE KARTZELA ZIGORREK INDARKERIAREN JAITSIERA?

Norbaitek galdetu al dio emakumeren bati zer behar duen halako egoeran? Gehiengoa ez dago konforme erasotzaileen pena handitzearekin ezta salaketarekin ere, baizik eta hauek indarkeria berriro ez erabiltzearekin. Akaso

ahaztu al zaigu biktimak laguntzea dela helburua?

Azkenik, kartzela penei buruz baino ez da hitz egiten honi irteera bilatzean. Ez, ordea, prebentzio edo hezkuntzari buruz. Ezta birgizarteratzerako proposa den justizia lehengoratzaileren inguruan ere. Beraz, zein litzateke komunitateak konpondu eta eraldatzeko bidea, feminismoaren ezerosotasunaren bitartez?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Azaroaren 30ean greba feminista orokorrera!

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ETA ALTSASUKO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Aste erabakigarria izan da. Izan ere, duela hilabete batzuk Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30ean greba feminista orokorra iragarri zuen eta, orduz geroztik, Euskal Herriko nahiz Sakanako herrietan hainbat ekimen egin dira grebarako aldarria lau haizetara zabaltzeko.

Pertsona guztiok zaugarriak gara eta, ondorioz, bizitza osoan zehar zainduak izateko beharra dugu; nahiz eta momentu batzuetan behar hori handiagoa izan den beste batzuetan baino. Ezaugarri horrek elkarrekiko mendeakoa garen izaki egiten gaitu eta, beraz, zaintza lanen

ardura denona dela ulertarazten digu; zaintza eskubide kolektiboa ez ezik, guztion betebeharra ere badela azpimarratuz.

Gaur egun zaintza lanak nagusiki emakumeek egiten dituzte; hori berresten digute zaintzarako hartzen diren baimenen, eszedentzien edota lanaldi murrizketen datuek. Hego Euskal Herrian 182.000 langilek etxeko lan ez-ordainduan dihardute, ia guztiak emakumeak dira eta ez dute ordainsaririk jasotzen; eta horrek pentsioetan eragin zuzena du. Halaber, emakume migratzaileak dira adineko pertsonak zaindu eta etxeak garbitzen dituztenak, askotan lan kontraturik gabe. Honenbestez, ezinbestekoa da gizonen inplikazioa.

Baina erakunde publikoek eta tokiko administrazioek ere dagokigun ardura hartu behar dugu auzi honetan. Erronka handia dugu Mugimendu Feministak egiten dituen aldarriak entzun, eta gure eskumenekoak direnei bide emateko. Zentzu honetan, pertsonak zaintzeko ditugun bitartekoak eta baliabideak aztertu, eta ahal dugun neurrian zaintza sistema publikoa indartzeko neurriak hartu behar ditugu.

Ostegunean gu ere kalera atera ginen, besteak beste, zaintzarako eskubide kolektiboa aldarrikatzeko, zaintzen antolaketa sexista eta arrazista aldatzeko eta zaintzaileen lan baldintza duinak aldarrikatzeko.

Aste erabakigarria izan da, bai. Baina ostegunean ez zen ezer amaitu. Indarrak batu eta ostiraletik aurrera ere lanean jarraituko dugu herritar guztien ongizatean gure alea jartzeko.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Trenbidea eta bazterbidea Uharte Arakilen. ARTXIBOA

Uharteko tren geltokiko bazterbidea luzatu egingen dute

Tren zirkulazioa arintzearen eta salgaien garraioa bulkatzearen aldeko apustuaren parte dira

UHARTE ARAKIL

Zirkulazioa oztopatu gabe trenak bertan geratzeko daude eginda bazterbideak. Hala, presa handi-agoa duten trenak aurrera egin dezakete. Trenbide sarearen kudeaketaz arduratzen den Adif enpresa publikoak gaur egungo hainbat bazterbide egokitzeko plangintza du mahai gainean. Horren bidez egungo bazterbideak luzatu nahi ditu, luzera estandarreko merkantzia trenak aparatu eta baztertu ahal izateko. Horren ondorioz, trenbide sarearen elkarreragingarritasuna indartuko du, batez ere salgaien trafikorako.

Merkantziak garraiatzen dituzten tren estandarrek 750 metroko luzera dute eta, beraz, bazterbideak luzera hori izan behar dute. Nafarroan trenbide bakarra dago eta neurri horretako bazterbideak edukitzeak salgaien eta bidaiarien zirkula-

zioa arintzea dakar. Uharte Arakilgo tren geltokiko bazterbideak 610 bat metro ditu eta hura 750 metrora arte luzatzeko administrazio prozesua abiatu berri du Adifek. Horretarako, 1.558 m²-ko azalera desjabetuko du; lur horietako gehienak Nafarroako Gobernuarenak dira. Zaragoza eta Irun arteko trenbidean, Nafarroan, lan berak egingen ditu Adifek Caparrosen eta Artederretan.

Proiektuak merkantzien trafikoan trenaren erabilera areagotu nahi du, trenbidean dabilzan salgaiak esportatzen diren portuetara iritsi eta bertatik irteten baitira. "750 metroko bazterbideak funtsezkoak dira itsasoko eta trenbideko garraioaren arteko sinergiak aprobetxatzeko, mugikortasun iraunkorra eta lehia-korra bulkatzeko eta CO₂ emisioak murrizten laguntzeko", azaldu dute Adifetik.

Toki erakunde guztiak berri dira

Igandean egindako hauteskunde partzialekin Zuhatzuko Kontzejua eta Iturmendiko Udala berri ziren. Zuhatzun Juan Pedro Arregi Sarasa izanen da kontzejuko burua, eta Iturmendiko alkatea Kai Galartza Cervera. Kargua abenduaren 16an hartuko dute


ZUHATZU / ITURMENDI

Igandean zuhatzuarrek erabaki zuten Juan Pedro Arregi Sarasak herriko kontzejuko presidente izaten jarraitzea. Erroldako 35 zuhatzuarretatik 21 (%60) eman zuten botoa; Arregiren aldeko 18 boto (%85,71) izan ziren, eta hiru boto (%14,29) txuri. Iturmendiko alkatea, aurreneko emakumezkoa, Kai Galartza Cervera izanen da. Erroldako 342 iturmendiarretatik 163k (%47,66) eman zuten botoa, eta haietatik 160 (%98,16) Herri Elkarlanarendako izan ziren. Aulki Txuriak hautagaitzak ez zuen boto bat bera ere jaso.

Sakanan hamabost udal daude, guztira 121 zinegotzi ditzutenak. Hautetsien generoari erreparatuta, hamabost alkateetatik bederatzia (%60) gizonetzkoak dira eta sei (%40) emakumezkoak. Zinegotzietatik dagokienez, 73 (%60,33) gizonetzkoak dira, 48 (%39,67) emakumezkoak. Sakanan, bestalde, hamabost kontzejua daude, eta haietan lan egiteko 53 sakandar aukeratu dituzte aurten. Hamabost kontzejuetatik hamabitana (%80) presidentea gizonetzkoa da, eta gainontzeko hiruetan (%20) emakumezkoak. Bestalde, 53 bokaletatik 33 (%62,26) gizonetzkoak dira eta 20 (%37,74) emakumezkoak.



Iturmendiko udal berriko kideen talde argazkia. UTZITAKOA



Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

**PIRRITX, PORROTX
ETA MARIMOTOTS**

Abenduaren 3an
17:00etan
Irurtzongo kiroldegian

Sarrerak salgai:
Pikuxar
Estankoa
Marxueta
Maimur (Leitza)

aizpea

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Altsasuko Udala mailegurik gabe

Zelandi kiroldegia egiteko mailegua eskatu zuen eta hura alde aurretik amortizatzea erabaki du udalak. Falta diren maileguko 794.845,51 euroak ordainduko ditu. Zorrik gabe gelditzean etor litezken finantza araudiei errazago erantzuteko aukera izanen du

ALTSASU

Udalak 3,6 milioi euroko inbertsioa egin zuen Zelandi kiroldegia egiteko. Horretarako, udalak Nafarroako Aurrezki Kutxarekin 1.545.000 euro mailegua kontratu zuen 2007an. Haren interesa Euriborra gehi 0,25 da. Maileguaren epea 2037ko martxoaren 1ean bukatuko da. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, "ordaintzeko 794.845,51 euro falta dira. Horri interesen aurreikuspena gehituz gero, guztira 815.400 euro dira. Udalaren ekonomia egoerak aukera ematen duenez, mailegu hori alde aurretik amortizatzea erabaki dugu. Gainera, udalak duen mailegu bakarra da".

Ollok azaldu duenez, bi izan dira erabakia hartzeko arrazoiak. "Batetik, maileguen interes tasen igoera handia. Bestetik, gastua liberatzea. Udal aurrekontuan gastu arrunta edo inbertsio gastua finantzatzeko duen sarrera marjina handiagoa lortuko dugu.



Gizonezkoa bizikletan ibiltzen Zelandi kiroldegiko gimnasioan. ARTXIBOA

Ondorioz, erabaki horrekin, udalak ez du zorrik izango, eta gastua askatzen du". Alkateak gaineratu duenez, "hartutakoa oso erabaki garrantzitsua da; izan ere, pandemiaren ondorioz lehenik eta Ukrainako gerraga-

tik ondoren, bertan behera utzitako arau fiskalak aplikatzera bueltatu baitaitezke".

Lanak kiroldegian

Pandemiaren eraginez, Atabo Altsasu SM enpresa publikoak

kiroldegian prebentzio neurriak indarrean jarri zituen. Ondorioz, 2020 eta 2022 urteen artean bazkideen kopurua nabarmen murriztu zen. Gainera, Ukrainako gerrak hornidura gastuen garestitzea handia ekarri zuen, batez ere gasarena. Eta udalak aparteko diru ekarpenak egin behar izan zizkion sozietate publikoari, udalaren kirol instalazioak kudeatzeko enkarguagatik ordaintzen den prezioa alde batera utzita. Aurten ere ohiko kopuruarekin batera, udalak Atabo Altsasu SM enpresaren dako 176.000 euroko aparteko ekarpena aurreikusitako bere aurrekontuan.

Alkateak azaldu duenez, "hiru urte oso zailen ondoren enpresaren ekonomia egoera nabarmen hobetu da aurten; batetik, abonatuak pertsonen kopurua igo delako eta ia 1.800 bazkide daudelako, pandemia aurreko kopurua. Bestetik, hornidura gastuak murriztu dira". Horregatik, "oraindik ez da aparteko diru poltsa hori erabili eta horren zati bat kiroldegian premiazko inbertsioak egiteko erabiliko ditugu". Klimatizazioaren funtzionamendu sistema berrituko da, eta horren diferentzialak eta larrialdi argiak berrituko dira. "Inbertsio horiek aspalditik dira beharrezkoak, eta enpresaren hobekuntza ekonomikoaren aurrean, egin ahal izango dira. Era berean, bizikleta eliptiko berriak erosiko dira", gaineratu du Ollok.

LAKUNTZA

Plazan, udaletxearen eta markesinaren artean, estalpe finko bat nahi duten erabakiko dute lakuntzarrek asteburuan. Horretarako, udalak herri galdeketa antolatu du. Lakuntzarrek honako galderari erantzun beharoko diote: *Udaletxe pareko zonaldean estalpe finkoa egitearekin ados zaude? Ados bazaude, bi aukeretatik zein nahiago duzu?* Boto paperean, beraz, hiru erantzun posible izanen dira: BAI-A aukera, BAI-B aukera eta EZ. Asteburu guztia izanen da botoa emateko: ostiralean 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, larunbatean 11:00etatik 14:00etara eta igandean 11:00etatik 14:00etara.

Lakuntzako Udalak estalpea egiteko dirulaguntza bat eskuratzeko aukera du, baina, horretarako, proiektua ilbeltzaren 19rako egina izan behar du. Horregatik, azaroaren 9an plazan estalpea jartzeko aukeraz bilera irekia deitu zuen. Ondoren ideia lehiaketa bat antolatu zuen, eta hainbat arkitekto gonbidatu zituzten. Bi proposamen jaso zituzte eta horiek dira asteburuan udaletxeko batzar aretoan ikusgai izanen direnak. Arkitektoek beraien proposamenak egiteko honako baldintzak izan behar zituzten kontuan: estalpea erai-kuntza arina eta ingurunean integratutakoa izatea, gutxi gorabehera 200 eta 250 m²-ko azalera izatea, material arinak eta mantentzeko errazak izatea, iraunkortasun irizpideak kontuan hartzea eta estalpearen kostua 85.000 eta 105.000 euro artekoa izatea.

Atzera begira

2010ean egindako parte hartze prozesu baten bidez jarri eta kendu zitekeen estalpe baten alde egin zuten. Plaza berritua 2014ko agorrilaren 21ean mustu zen. Ordutik uda partean jarri eta negurako kentzen zen tolo bat zuten estalpe gisa plazan. 2021eko azaroaren 28ra arte. Egun hartan botatako elurrak estalpeko egitura bat hondatu zuen. Azken bi urteetan festetarako karpa alokatu izan du udalak, 6.200 euro balio zuena. Oihane Uribetxeberria Garmendia alkateak azaldu duenez, "udalean uste dugu behin betikoa izan nahi duen irtenbidea eta eguraldiaren gora beherengandik babestutako gune bat izatea beharrezkoa dela". Urbe-

DUELA 25 URTE...



'Etxarrietatik Sakanerara' liburua

Durangoko Azokan aurkeztutako liburuen artean zegoen *Etxarrietatik Sakanerara* liburua. Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñano filologo etxarriarrek lau pabost urtetan egindako lanaren fruitua zen. Alde batetik, etxarriaren bereizgarrien azterketa eta haien erabilerarako proposamena jaso zituzten. Eta, bestetik, Sakanako ezaugarriak batuara ekartzeko iradokizun eta ohar bilduma egin zuten. Sinonimoen hiztegia eta herriko etxeen argazki eta izenekin osatu zuten liburua.



Lan istripuan hila

Etxarri Aranazko Industrial de Armaduras Omnia enpresan lan istripua izan zen asteazkenean eta 51 urteko altsasuarra hil zen. Alarguna eta alaba utzi ditu. Hildakoaren senide eta hurbekoei elkartzuna adierazi eta lantokietan prebentzio araudia indarrean jartzea exijituz bilkura egin zen Altsasun herenegun LAB, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU eta CGT/LKN intersindikalak deituta.

Plazan estalpe finkoa? Galdeketa Lakuntzan

Udalak proposatutako galderari erantzuteko aukera izanen dute 16 urtetik gorako lakuntzarrek asteburuan. Ezezkoa edo baiezkua eman daiteke. Azken hori egiten duenak bi estalpe proposamenetako baten alde egin beharko du



A aukera

240 m²-ko azalera du, 10,5 m x 21 m aldeak dituen 4 plano inklinatuz osatutako laukizuzena. Estructura nagusia altzairuzko profitez egindakoa eta egur bigetekin osatua. Estructura korten altzairuzko txapez estalia proposatzen da. Estalduari dagokionez, alde batetik, txapazko sandwich panelez osatutako oihal opako eta polikarbonato zelularreko beste oihal zeharrargiekin planteatzen da.



B aukera

240 m²ko azalera, 11,50 m x 21 m aldeak dituen paralelograma, udaletxearen aurrealdea libre eta irekia, ipar-hego ardatza. "V" itxurako 4 altzairuzko zutabe zilindriko pareak, egur laminatuzko bi habe nagusi eta habexkaz osatutako estructura. Estalduari dagokionez, alde batetik, txapazko sandwich panelez osatutako oihal opako eta polikarbonato zelularreko beste oihal zeharrargiekin planteatzen da.

txeberriak nabarmendu duenez, "gune horri esker, festetako jarduek aparte, urtean zehar egiten diren makina bat jarduerak babeslekua izanen lukete". Horien artean daude: astearteko azoka, urtean zehar egiten diren ospakizun eta ekitaldiak (ihoteak, kinto ospakizunak, Korpus Eguna, mendi lasterketa...). Gainera, "eguraldiak hala baimentzen duenean plaza haur, gazte eta

helduen elkargune eta topagunea izan ohi da urte guztian. Eredu estali batek, topagune hori indartuko luke", azaldu du alkateak.



*Gorde zerbaki hau

Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek

BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneel bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan arnaguneetan bizirik diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta



arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleek ere. Irailen abiatutako "Arnasetik" sormen lehiaketak azaroaren 22an izan zuen amaiera gara, Zarautzeko Modelo Aretoan. Lehiaketaren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da, laz baino 13 lan gehiago jaso direlarik. Adinaren arabera hiru kategoriatan izan ditu lehiaketak, eta kategoriatan bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zela biziaren lotuak. Nahia Sillero influentzia izan zen

gidaria, eta Defie musikariak hiru pleza eskaini zituen.

ARNASA GARA

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jalo zen, UEMAK, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gaztekoenak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren

Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.

Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

10-16 urte bitarteko gazteek parte hartu dute.

Inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Gazteek edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Arnasetik" bideosormen lehiaketaren bigarren edizioa. Hori dela eta, Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteek gogoeta piztu eta hizkuntza ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du.

Info gehiago: www.arnasagara.eus



Enrique Eraso Centellas, Nafarroako Gobernuak Bioaniztasun zerbitzuko zuzendaria.

Faunak ekoduktua ezagutzeko zain

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Jose M^a Aierdi eta Etxarriko alkate Maria Saez de Albeniz buru zirela, Aritzalkoko ekopasabidea ostiralean mustu zuten. "Faunaren biodibertsitatearendako funtsezko korridore ekologikoa da"

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Sakanan ditugun autobia eta errepidea basapiztiendako arazoa ziren 2000. urtean. Hala jakinarazi zion GUAIXEri Bakaiku eta Iturmendiko ehiztarien elkarterko lehendakari Jose Ignacio Urrizak urte hartako lastailean: "egun berean bi basapizti agertu ziren hilik Aritzalko parean: erbia eta lepazuria". Albistearen berri beste hedabideetan zabaldu zuten ondoren. Beraz, urteak ziren Ingurumen Departamentuak Etxarri Aranazko Aritzalko basoa begiz jota zuela. Hala aitortu zuen Enrique Eraso Centellesek, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko Bioaniztasun Zerbitzuko zuzendariak Aritzalkon bertan ostiralean.

Erasok azaldu zuenez, "iragazkortekeko lehentasunezko helburuen artean jasoa genuen, baita Natura 2000 sareko espazioen arteko konektagarritasuna hobetzeko ere". Aralar eta Urbasa-Andia aipatutako sarean daude eta, gainera, Kontserbazio

Bereziko Eremuak dira. Bien artean animalien arteko pasabidea eginda, ugaztunen populazioen arteko genetika trukea erraztu eta harrapaketak eta istripuak saihestuko dira.

Goitik egitearen zergatia

Ekoduktua egin den tokitik 215 bat metrora erreka bat pasatzen da autobia eta errepide azpitik. Ekopasabidea zergatik egin den haien gainera eta ez azpitik galdetuta, Erasok esan zuen: "has-teko beheko pasabideak goitik egindakoak baino okerragoak dira. Fauna guztiak ez ditu lurpeko pasabideak hartzen. Konektagarritasuna kontutan hartuta, askoz eraginkorragoak dira goiko pasabideak". Gaineratu duenez, "Sakanako Autobian (A-10) apenas dago goiko pasabiderik, eta baten beharra nabari-nabaria zen. Autobia guztiaren iragazkortasun eta espezieen mugimenduaren erresistentzia analisi zehatza egin ondoren aukeratu genuen Aritzalko eko-

pasabidea egiteko". Erasok nabarmendu zuenez, "autobiako zati honetan, historikoki, faunaren hilkortasun tasa nahikoa altua izan da. Hemen bisoi bat hilda agertu zen. Guretako desagertzeko arrisku handiena duen espezieetako bat da. Badira ere desagertzeko hainbesteko arriskurik ez duten, baina oso garrantzitsuak diren espezieak ere: lepazuria, katajineta, azeriak... Horiek ere ibilgailuak harrapatuta hiltzen ari ziren. Eta ohiko orkatzak eta basurdeak. Tamaina bat duten lehorreko faunarendako ekopasabidea garrantzitsua izanen da", azaldu zuen Erasok.

Sakanan beste ekopasabide bat egiteko beste tokiren bat begiz

"FAUNAREN HILKORTASUN TASA NAHIKOA ALTUA IZAN DA AUTOBIAKO ZATI HONETAN HISTORIKOKI"

jota duten galdetuta, Erasok azaldu zuen diru baliabideak mugatuak direla. "Horrelako gauza bat egitea oso ezohikoa da. Oraintxe beste bat egitea ez da egingarria. Azken urteetan lurpeko pasak hobetzen saiatzen ari gara. Azpiegitura txiki gehigarriak jarri ditugu, faunarendako errazagoa izan dadin handik ibiltzea. Ekoduktua berri batean lan egin beharrean dauden pasabide horiek hobetzen saiatzen ari gara".

Landareak eta zuhaixkak

Zuzendariak aurreratu zuenez, "emaitzak ez dira berehalakoa ikusiko. Orain arte animaliak honaino iritsi eta aldeetara mugitu beharra zuten, beste pasa bat opatzeko. Orain ekoduktua ezagutu beharko dute". Erasok argitu zuenez, "bi aldeetan basoa dago, ondoren larreak daude. Ekoduktua hobetzeko hariztarian dauden landare eta zuhaixkak, beharbada haginaren bat, landatuko ditugu neguan. Ekopasabiderako aldapetan ezkiak, lizarrak, astigarrak eta beste jarriko ditugu. Eta haien ertzetan dauden hesiak txilarrez estaliko ditugu, ibilgailuen argiek animaliak ez itsutzeko". Izan ere, "animaliak mugitu behar dutenean itxia edo ez hain itxia den landare estalkia baliatzen dute. Horrelako zerbait egiten saiatuko gara". Bestalde, lanak egin bitartean zenbait zuhaixka moztu behar izan zituzten. Haien orain hainbat tokitan pilatu dituzte. Pilatze txiki horiek "ugaztun txikiendako edo anfibioendako pasa puntuak dira. Laguntzarako espazioak dira. Ibai bat pasatzeko jartzen diren harrien moduko funtzioa dute".

Animaliak ekopasabidera bideratzeko Aritzalkon bi metroko altuera duen hesia jarri dute. "Animalien arteko pasabidea atsegina izatea nahi dugu, soinu eta ikuste ikuspegitik ahalik eta iragazgaitzen izan dadila". Hegoaldeko aldeko hesiak errepaso beharra zuela jakinarazi zion Jesus Razkin Ijorra zinegotziak mustu aurretik. Oraindik ez dute animalia aztarnarik opatu ekopasabidean. "Animalien erabilera jarraipena egiten saiatuko gara". Hori egiteko bi aukera dituzte: une jakinetan ekoduktua zainduko duten pertsonak jarriz, edo kameraren bidez. Erasok nabarmendu zuenez, "hemen zenbat eta giza erabilera gutxiago egin, hobe".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ALTSASU Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra. Biak Bat elkarteak, Sakanako Mankomunitateak, Arkatx liburudendak eta Txantxari Ludotekak antolatuta. **15:30ean, Txantxari udal ludotekan.**

ALTSASU Tailerra eta trukea.

Familia artean jolasten tailerra eta jolas eta jostailu trukaketa, Ziordia, Olazti eta Altsasuko Oinarrizko Zerbitzuek, Txantxari Ludotekak eta Iñigo Aritza ikastolak antolatuta. Iortia kultur gunean.

16:30 Tailerra.

18:00 Trukaketa.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Sakanako Gure Pilota Txapelketa, Gure Pilota elkarteak antolatuta. Iraia - Itzea / Nahia M. - Laia Izar - Naiara / Laiatz - Sarai Haizea - Nahia I. / Jare - Irati L. June C. - Arhane / Oskia - Aizeti **18:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.**

UHARTE ARAKIL Mustutzea.

Koldo Arnanz Zufiaurreren *Keinu bat iragan industrialari* erakusketaren mustutze ekitaldia; margolariaren azalpenak eta luntxa. **19:00etan, udaletxean.**

OLATZAGUTIA Film laburren proiektzioa.

Nafarroa, zinema lurraldea film laburren jaialdiko hamar lan finalisten proiektzioa, Olatzagutian grabatutako Imanol Retaren *Última vista* barne. **19:00etan, kultur etxean.**

ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

IX. Zama Doinuz Arindun jaialdiaren aurkezpena eta auzatea. **20:30ean, plazan.**

LARUNBATA 2

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Sakanako Gure Pilota Txapelketa, Gure Pilota elkarteak antolatuta. Laida - Iraia / Olaia - Nahia G. Katixa - Amaia / Auritze - Izar Izaro - Anitz / Sua - Olaitz Eider I. - Zabalza / Uxue - Izadi
09:00etan, Euskalerriri pilotalekuan.

ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.
Israel boikot! Palestina askatu! kontzentrazioa, Etxarri Palestina elkartasun taldeak deituta.
13:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.
Sakanako Gure Pilota Txapelketa, Gure Pilota elkarteak antolatuta. Saralegi - Aldasoro / Mazizior - Larraza Saioa - Casillas / Lazkoz - Kerejeta Zabalza - Tollaretxipi / Lopez - Sarasibar
16:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.

ALTSASU Gazte agenda.
Euskara munduan ekimena.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 3

URDIAIN Ziklo krosa.
IV. Urdiaingo Ziklo Krosa lasterketa: kadete, junior, elite eta master mailak. Burunda Txirindularitza Taldeak antolatuta.
09:45ean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.
Sakanako Gure Pilota Txapelketa, Gure Pilota elkarteak antolatuta. Lopez - Sarasibar / Artaco - Astitz Espinal - Ardanaz - Haizea - Otxoa Galdos - Ruiz de Azua / Murillo - Elizmendi
10:00etan, Euskalerriri pilotalekuan.

ALTSASU Aurkezpena.
Altsasu Kirol Elkarteko futbol taldeen aurkezpena.
11:00etan, Dantzaleku futbol zelain.

LAKUNTZA Kontzertua.
Irurtzango Abesbatzaren Nafarroako Eguneko kontzertua.
12:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Kontzertua.
Etxarri Aranazko Abesbatzaren Nafarroako Eguneko kontzertua.
12:00etan, elizan.

IRURTZUN Ikuskizuna.
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Ez gara jaitsiko* ikuskizuna, Euskal Ekitaldiak Aizpeak antolatutako programaren barruan.
17:00etan, kiroldegian.

ASTELEHENA 4

IRURTZUN Kalejira.
Irurtzun Kantuz eta trikitalarien kalejira, Euskal Ekitaldiak Aizpeak antolatutako programaren barruan.
12:00etan, Foru plazatik.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 6

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.
Sakanako Gure Pilota Txapelketa, Gure Pilota elkarteak antolatuta. Leire - Alaine / Juna - Irati M. Irene - Olaia G. / Maialen M. - Nerea Eider - Zabalza / Laida - Iraia Mazizior - Larraza / Purroy - Onditz
10:30etan, Euskalerriri pilotalekuan.

IRURTZUN Zinema.
Neguko zinema: *7 vírgenes* filmaren emanaldia. Irurtzango Udalak eta Larrazpi gazte elkarteak antolatuta.
20:00etan, Larrazpin.

OSTEGUNA 7

IRURTZUN Helduendako ipuin kontalaria.
Joxe Aldasorenen *Heldu da kontua* lehiaketako *Mingots eta Langarratik* ipuin irabazlearen ipuin kontakizuna, Euskal Ekitaldiak Aizpeak antolatutako programaren barruan.
19:00etan, Pikuxarren.

LAKUNTZA Antzerkia.
Ez dago kutxarik niretzat gazte eta helduendako antzezlan, Gora Gora Fest Euskarabideak Euskararen Egunaren harira antolatutako programaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 8

ALTSASU Lasterketa.
XLII. Zubeztia Elkarte Lasterketa II. Candi Aranz Memoriala, Zubeztia elkarteak antolatuta. 10 kilometroko ibilbidea. Izena ematea: *dantzalekusakana.com*; aurretik 3 euro, egunean bertan 5 euro.
11:30etan, Gartzia Ximenez kalean (Zubeztia elkartearen aurrean).

ALTSASU Gazte agenda.
Ping Pong txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 9

OLATZAGUTIA Mendi irteera.
Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Artika - Ezkaba - Olabe 16,46 kilometrotako ibilbidea, 659 metro aldapan gora eta 665 metro aldapan behera. Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuaren laguntzarekin antolatuta. Izena emateko azken eguna abenduaren 6a, 609 223 681 (Miguel) telefonoan. Bazkaria Uharteko pisinetan.
07:00etan, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Mendi lasterketa.
Etxarri Aranazko Gazte Trail mendi lasterketa: jubenilak (2007-2007) 11,4 km eta 564 metro desnibel; kadeteak (2008-2009) 8,1 km eta 330 metro desnibel; infantilak (2010-2011) 7 km eta 151 metro desnibel. Triku Trail taldeak lasterketaren hamargarren

urteurrenaren harira antolatutako proba, Nafarroako Kirol Jokoein elkartean. Izena emateak: *kronoak.com*.
09:30ean, Etxarri Kanpina.

ETXARRI ARANATZ Lasterketa.
VI. Etxarri Aranazko Txakurkrosa: Scooter, Bikejoring eta Canicross diziplinak. Ibilbidea: 6 km eta 90 metroko desnibela. Triku Trail kirol elkarteak eta Euskanikros canicross-bikejoring klubak antolatuta. Izena ematea: abenduaren 6a arte *kronoak.com* webgunean: bi egunak 25 euro,

egun bakarra 18 euro eta bi diziplina 28 euro.
17:30etik aurrera, kanpinaan.

ALTSASU Gazte agenda.
Primeran plataformako eduki baten proiektzioa, euskaraz.
18:00etan, Intxostiapuntan.



AISIALDIKO BEGIRALE EN LAN-POLTSA

Gutxieneko baldintzak:

- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz.
- C1 egiaztatu beharko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

Kontuan izango da:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek beren curriculum honako helbide honetara igorri beharko dute:
euskara1@sakana-mank.eus

Mank
s a k a n a

Bazkide zozketa

AZAROKO SARIDUNAK

1. SARIA

Irurtzango Udala (Irurtzun)

2. eta 3. SARIAK

Amaia Igoa Ezkutari (Altsasu)

Miren Beaskoetxea Martinez (Arbizu)

Nekane Betelu Aldaz (Uharteko Arakil)



ALTSASU Antzerkia.

Sexpertos Aitziber Garmendia eta Telmo Iruretaren antzezlanaren emanaldia, gaztelaniaz.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Bertso afaria.

Bertso afaria Saioa Alkaiza eta Unai Iturriagarekin, *Euskal Ekitaldiak* Aizpeak antolatutako programaren barruan. Izena ematea abenduaren 4ra arte.
21:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Antzerkia.

Sexberdinak Aitziber Garmendia eta Telmo Iruretaren antzezlanaren emanaldia, euskaraz.
21:00etan, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 10**ETXARRI ARANATZ Lasterketa.**

VI. Etxarri Aranatzko Txakurkrosa: Scooter, Bikejoring eta Canicross diziplinak. Ibilbidea: 6 km eta 90 metroko desnibela. Triku Trail kirol elkarteak eta Euskanikros canicross-bikejoring klubak antolatuta.
09:30etik aurrera, kanpinean.

ASTEAZKENA 13**IRURTZUN Solasaldia.**

Azpimarrak liburuaren solasaldia Nerea Balda Sanjuan idazlearekin, Euskal Ekitaldiak Aizpeak antolatutako programaren barruan.
19:00etan, Pikuxarren.

IRURTZUN Zinema.

Neguko zinema: *Hinchas radicales*

ZORION AGURRAK

Haitz Lazkoz Ginea
Zorionak guapisimo... Asteartean 11 urte beteko ditugu. Egun ona pasa eta muxu pila bat aitatxo, Ainetz, Lizarragako eta amifien partez.

ZINEMA**ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNeko
ARETO NAGUSIAN

Doraemon: Nobitaren dinosaurio berria familiarateko filma euskaraz
Igandea 3: 17:00

Alimañas gaurkotazuzeko filma
Igandea 3: 19:30

El viejo roble gaurkotazuzeko filma
Osteguna 7: 19:00
Igandea 10: 19:30
Astelehena 11: 19:00

Llegó a mí gaurkotazuzeko filma
Osteguna 14: 19:00

IORTIA KULTUR GUNeko
ARETO TXIKIAN

Teresa zineforum filma
Igandea 3: 19:00

Solo queda la danza zineforum filma
Osteguna 7: 19:00
Igandea 10: 19:30

Que nadie duerma zineforum filma
Igandea 14: 19:00

filmaren emanaldia. Irurtzungo Udalak eta Larrazpi gazte elkarteak antolatuta.
20:00etan, Larrazpin.

OSTEGUNA 14**LAKUNTZA Hitzaldia.**

Indarkeria matxista kasuen aurrean zein salaketa eta defentsa aukera ditugu?: Emakumeen kontrako eraso matxisten tratamendu judizialaren ezaugarri eta datu nagusiak. Hirule abokatuen eskutik, euskaraz. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren azaroaren 25aren egitarauaren barruan.
19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 15**IRURTZUN Hitzaldia.**

Haurrak eta gazteak, pornografiaren aurrean nola esku hartu Emaize sexologia zentroko Ana Ortiz Ballesterosen hitzaldia, gaztelaniaz. Haur eta gazteen bidelagunei zuzendutako hitzaldia (irakasleak, gurasoak, hezitzaileak...). Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren azaroaren 25aren egitarauaren barruan.
17:30etik 19:30era, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Sua txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazten.

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Mikel Arregi Marin. Oroimen erregistroak Lera-lkergunea Antropologia Taldeak egindako liburuaren aurkezpena, Kepa Fernandez de Larrinoa, Karlos Irujo Asurmendi eta Txuri Ollo Gorritirekin. Gaztelaniaz.
18:30ean, Lakuntzako Pertzan.

ALTSASU Tailerra.


Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra, Biak Bat txakurrekin eta hezitzaileekin, Sakanako Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak antolatuta.
18:30ean, liburutegian.

OLATZAGUTIA Zinema.

Bidasoa 2018-2023 Fermin Muguruzak zuzendutako film dokumentala.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Erkudengo Ama Abesbatzaren Gabonetako kontzertua.
20:00etan, elizan.

**ALTSASU Mikel Montesinosen Beste begirada argazki erakusketa.**

Azaroaren 21etik abenduaren 3ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etik 20:00etara eta igandetan 18:30etik 20:00etara. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

**UHARTE ARAKIL Koldo Aranz Zufiaurre altsasuarraren Keinu bat iragan industrialari erakusketa.**

Abenduaren 1etik 24ra. Larunbatetan 17:30etik 19:30era eta igandetan 11:30etik 13:30era. udaletxean.

ESKELA**Josetxo Albira Picón**

Besarkada bat familiarendako

Manexen lagunak

JAIOTZAK

- **Fatima Mbaye Mbaye**, azaroaren 17an Altsasun
- **Mario Irurtia Peru**, azaroaren 21ean Irañetan
- **Ander Ieregi Costa**, azaroaren 26an Altsasun
- **Jara Romero Aristorena**, azaroaren 26an Etxarri Aranatzan

EZKONTZAK

- **Josu Resano Mendinueta eta Mireia Saez Bengoetxea**, azaroaren 11n Ziordian

HERIOTZAK

- **Miguel Angel Granizo Gares** altsasuarra, azaroaren 28an Etxarri Aranatzan

IRAGARKI SAILKATUAK**IRAKASKUNTZA****KLASEAK EMAN**

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

NEGOZIOAK**ALOKAGAI**

Altsasun 'Coworking' bulego autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulego; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

IKASTAROA

Aisialdioko begirale titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroa

Altsasun eta Etxarri Aranatz: Abenduaren 16tik maiatzaren 11ra bitarteko larunbatetan, 9:00etatik 14:00etara eta egun trinkoak, abenduaren 16, 27, 28 eta 29. Etxarriko eta Altsasuko Udalek dirulaguntza emamen dute. Informazioa gehiago eta izen emateak 610 257 471 telefonon edota elurxinba@gmail.com e-postan.

OHARRAK

Bakaikuko Kalendaiyua 2024 egiteko argazki bila: Herriarekin lotura duten hamalau argazki behar ditugu, zure ustez interesgarriak edo politikak diren argazkiak bidaltzea eskertuko genizuke. Argazkiak gaur egun goak edo iraganekoak izan daitezke. Abenduaren 4a jasotzeko azken eguna izango da. Argazkiak dendan, Kokxon edo udaletxean utzi ditzakezu, edo bakaiku.egutegia@gmail.com helbidera edo 622 26 81 61

telefonora bidali. Argazkiak paperean edo formatu digitalean jasoko ditugu. Argazki guztiak berehala bueltako ditugu.

Zabalarte mendi elkartea egutegirako argazki bila: Elkarteak Lakuntzako bokoen argazkiekin ilustratu nahi du 2024ko egutegia eta horretarako lakuntzarrei argazkiak helbide honetara bidaltzea eskatzen die: lakuntza.aralar@gmail.com.

Elkartasunezko bilketa Olaztin: Abenduaren 11n, 12an eta 13an goizeko 9:00etatik 11:00etara Olaztiko kultur etxean egoera onean dauden arropak, jolasak, liburuak... eraman eta abenduaren 17an egingo den bigarren eskuko azokan salduko dira oso prezio onean. Saltzen ez den materiala Elkarrri Laguntza elkarteari bideratuko zaio. Informazio gehiago 648 070 710 telefonon edota anitzartean@sakana-mank.eus e-postan

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioerviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

ESKELA



Miguel Granizo Gares

Igo nazazu nire mendira
Aurki dezadan bidea
Askatu nadin zure loturaz
Behar dezadan airea

Ez nadin izan jainko lurtiarra
Bai ezinen bidaidea
Igo nazazu nire mendira
Zu ez baitzara nirea

Egunez zu bizitzera
Azken mugen ertzera
lainoen agurtzera
Elur gazietan

Zure lagunak



ESKELA



Miguel Granizo Gares

Beti gogoan izango zaitugu, Miguel
Besarkada bat familiarendako

Omiako zure lankideak

ESKELA



Miguel Angel Granizo Gares

Naroa Granizo Saez de Adana ikaslearen aita

Ikastolako hariztiko hostoak orbel.
Besarkada goxoa
Naroa eta Marianentzat.

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,
ikasle eta langileak**



ESKELA



Sonia Sanz Diez

Iñigo Aritza ikastolako Hegoa Eguren Sanz ikaslearen ama

Ikastolako hariztiko hostoak orbel.
Besarkada goxoa Eduardo,
Hegoa, Markel eta Eduardorentzat.

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,
ikasle eta langileak**



ESKELA



Fernando Sueskun

Agur Fernando, ikusi arte!
Tere maneje eta Luis Miguel Dominguin

OROIGARRIA



Jose Mari eta Alberto



Soilik ahazten dena dago hila

Etxekoak



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📧 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Burlades B - Altsasu 3-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Burlades B	24
5	Altsasu	19

HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 2, LARUNBATA

17:30 Altsasu - Beti Casedano (Dantzaleku)

Altsasuk Beti Casedano hartuko du

Goi postuek estu jarraitzen dute Preferenten. Burladesen kontra galdu ondoren, Beti Casedano hirugarrenaren kontra garaipena nahi du Altsasuk.

Altsasuko taldeen aurkezpena, etzi

Abenduaren 3an, igandea, Altsasu Kirol Elkartek 2023/2024 denboraldiko Altsasuko futbol talde guztien aurkezpena egingo du Dantzalekun, 11:00etatik aurrera.

EMAKUME PREFERENTEA

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Burlades - Altsasu 5-1

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1	Tudelano	23
9	Altsasu	1

HURRENGO JARDUNALDIA

ABENDUAK 3, IGANDEA

16:30 Altsasu - Gazte Berriak (Dantzaleku)

Altsasu, Gazte Berriaren kontra

Azkeneko partida ahaztuta, Altsasuk Gazte Berriaren kontra lan ona egin nahi du.

FUTBOL ERREGIONALA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Mutilbera C - Etxarri Aranatz 5-0
Lagun Artea - Berriozar 4-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Mutilbera C	24
3	Lagun Artea	16
7	Etxarri Aranatz	14

ABENDUAK 2, LARUNBATA

11:30 Etxarri A. - Lagun Artea (San Donato)

Etxarri eta Lagun, derbiaren atarian

Etxarri Aranatzek jipoi ederra hartu zuen Mutilbera C liderrari egindako bisitan. Aldiz, Lagun Artea Berriozar hartu zuen Zelai Berrin eta lortutako garaipenari esker lakuntzarrak hirugarren kokatu dira sailkapenean. Larunbat goizean San Donato zelaiak Etxarri Aranatz eta Lagun Artearen erregional mailako lehen derbia hartuko du. Biek asko dute jokoan.

Zubi foral kirolaria Sakanan

KIROLDEGIA Abenduaren 3an IV. Urdiaingo Ziklo-krosa jokatu da, abenduaren 8an XLII. Zubeztia Elkartea Lasterketa, abenduaren 9an Etxarri Aranazko Gazte Trail Mendi Lasterketa eta abenduaren 9an eta 10ean VI. Etxarri Aranazko Txakurkrosa

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakandar askok festa izango dute datorren aste osoa, Nafarroaren Egunezik hasita Ama Birjinaren egunera arte. Zubi foralean, ordea, kirolak ez du atsedenik hartuko: lau lasterketa jokatu dira gurean. Haiei Sakanako Pala Txapelketako jardunaldia eta futbol, pilota, saskibalo eta bestelako ligetako partidak gehitu behar zaizkie.

Hasteko, Urdiaingo Ziklo-krosa

IV. Urdiaingo Ziklo-krosa-Benigno Mendia Memoriala abenduaren 3an jokatu da. Ibilbidean eta kategorietan berrikuntzekin dator. Masterrak 9:45ean abiatuko dira; kadeteak 10:45ean, jubenilak 11:45ean, eta eliteak eta 23 urtez azpikoak 12:45ean.

Zubeztiako tradizioa

Ohikoa den bezala, abenduaren 8an, Ama Birjinaren Eguna, XLII. Zubeztia Elkartea Lasterketa jokatu da, II. Candi Arnanz Memoriala, Altsasun. 10 kilometroko lasterketa 11:30ean abiatuko da Zubeztia elkartearen paretik, eta herrian prestatutako ibilbideari lau itzuli eman beharko dizkiote korrikalariak. Izena ematea www.dantzaleku-sakana.com webgunean egin daiteke, edo lasterketaren egu-



Etxarri Aranazko Txakurkrosa lasterketa berezia da. Etxarriko kanpinean jokatu da.

nean bertan, 9:00etatik 11:00etara. 18 urtetik gorakoek har dezakete parte.

Gazte Traila, nobedadea

Nobedade gisa, abenduaren 9an 9:30etik aurrera Etxarri Aranazko Gazte Trail Mendi Lasterketa jokatu da Etxarriko kanpinean, Triku Trailek eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatuta. Nafar Kirol Jokoetarako baliagarria izango da. Infantilak (7 km), kadeteak (8,1 km) eta jubenilak (11,4 km) lehiatuko dira. Izena

ematea zabalik dago kronoak.com webgunean.

Txakurkrosa, bi egunetan

Triku Trail kirol elkarteak eta Euskanikros taldeak antolatuta dute VI. Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Abenduaren 9an, arratsaldean jokatu da, 17:30etik aurrera (4 km), eta abenduaren 10ean, aldiz, goizez, 9:00etatik aurrera (6 km). Hiru diziplinatan jokatu da: scooter, bikejoring eta txakurkrosa. Izena ematea zabalik dago www.kronoak.com webgunean.



Emakumezkoen podiuma. ATLETISMO FED.

ATLETISMOA Beunza, 35 urteko Masterseko Nafarroako txapelduna

Igandean Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa eta Nafarroako Masterseko Txapelketa jokatu zen San Adrianen. Gizonezkoetan Alvaro Alduan (Ardoi) izan zen txapelduna (13:38). Emakumezkoetan lehia oso bizia izan zuten Jihad Essoubaik (Iranzu) eta Izaskun Beunza olaztiarrak (Beste Iruña). Azkenean, Essoubai sartu zen lehena (15:15), Beunza segundo bat aterata (15:46). Beunza Nafarroako Kros Laburreko txapeldunordea izan zen, baina Nafarroako Masters Txapelketako 35 urteko txapelduna. Aipatzekoa da ere Nafarroako Kirol Jokoen barruan San Adrianeko Krosean lehiatu ziren Dantzaleku Sakanako korrikalariak lan polita egin zutela.

DATORRENA

Sakanako Xake Txapelketa, Olaztin



Mankomunitateak eta Zaldi Beltza Xake Taldeak antolatuta, abenduaren 16an Sakanako XXIII. Xake Txapelketa jokatu da Olaztin Kultur Etxean, aldi berean Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako Txapelketa izango dena. 10:00etan hasiko da, eta 9:30etik aurrera eman beharko da izena. Txapelketa 15 minutu eta 5'' jokaldiko 8 partidara jokatu da.

Angeluko desafioa, etxera

AIZKORA Azaroaren 18an hiru aizkolarik bikotez aizkora desafioa jokatu zuten Angelun: Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia etxarriarrak, Oier Larretxea eta Endika Goia beratarrak eta Ibai Tellechea eta Patxi Igoa angelutarrak. Apustu hau Nafarroako Hirugarren Mailako Txapelketan sortu zen. Aritz Oiarbide eta Jon Erdoziak irabazi zuten desafioa. Errebatxa Etxarri hartuko du.





Iskiza Sakana oinarrizko junior taldeko gimnastak eta Olaia Agirre monitorea, Nafarroa Arenako atsedendaldi batean. UTZITAKOA

Nafarroa Arenaren magia

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko oinarrizko junior taldeak orain arteko emaitzarik onena lortu du Espainiako oinarrizko Taldekako Txapelketan. Nafarroa Arenan lehiatu ziren 147 taldeen artean sakandarrak 29. sailkatu ziren

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Azaroaren 23tik 26ra Espainiako Gimnasia Erritmikoko Taldekako Txapelketa hartu zuen Nafarroa Arena pabiloi ikusgarriak. 3.300 gimnasta baino gehiago lehiatu ziren, tartean Iskiza Sakanako oinarrizko jubenilen taldeak. Olaia Agirre monitorea zuzentzen duen taldea Nafarroako Bigarren Mailako Txapelketa irabaztetik zetorren, eta Espainiako Oinarrizko Taldeen Txapelketan lan ona egin nahi zuen; baita lortu ere.

Iskiza sarritan lehiatu izan da Espainiako Txapelketetan, baina lehen aldia da Nafarroa Arenan jokatu zutela eta horrek bereziago egin zuen txapelketa. "Kanpora ateratzea eta toki berriak ezagutzeko oso ongi dago, baina etxean egotea eta gertuko jendearen berotasun hori sen-

titzea oso polita da. Nafarroa Arenan gure gimnastek familia eta lagunak izan zituzten gertu, eta hori ere beraiendako oso polita izan da" nabarmendu du Olaia Agirrek. Ikusle askok jarraitu zuten txapelketa. "Toki paregabea da; egon garen guztien artean hoberena dela esango nuke. Kanpotik etorri zirenek ere hala esaten zuten. Nafarroa Arena bezalakorik ez dago".

Etxean jokatzeak beste abantaila bat izan zuen: aurretik Nafarroa Arenan bertan entrenatzea. "Txapelketa bezperan egon ginen entrenatzen. Tapi-

"EZ GENUEN LEHEN 30 TALDE HOBERENEN ARTEAN SAILKATZEA ESPERO. GOIAN GAUDE"
OLAIA AGIRRE

zaren neurriak eta ezaugarriak berberak dira toki guztietan, baina argiztapena ez. Eta nabaritzen da. Justu goian fokuren bat badago eta gora begiratzean itsutzen bazaitu, horrek akatserra eraman zaitzake. Adibidez, oso desberdina da Zelandi kiroldegian edo Zelandi frontoian aritzea, fokuengatik. Nafarroa Arenan argia indartsua zen, baina ez zuen itsutzen".

Goizter

Ane Iturrioz, Eider Goikoetxea, Iruñe Etxaniz, Nagore Erdozia eta Naroa Diaz gimnastek osatzen dute Iskizako juniorren taldea. "Etxean egonda, lana ongi egiteko gogo gehiago zuten, eta horri aurre egitea ere ez da erraza izaten". Euren mailan 147 taldek parte hartu zuten. Kategoriarik jendetsuena izan zen, eta larunbatean jokatu zen,

goizetik hasita gauera arte. "Guri 9:00etan aritzea egokitu zitzaigun, eta 7:30etarako bertan geunden, berotzen. Ia txapelketa irekitzea egokitu zitzaigun, eta hori ere ez da samurra". Araudiari jarraitu, erabili zituzten aparatuek bi zinta eta hiru pilota izan ziren.

Emaitzarik onena

Zailtasun guztiei aurre eginda, oso ongi aritu ziren Iskizako gimnastak, eta meritua handiko postua lortu zuten: 147 talderen artean 29. sailkatzea. "Nafarroako Txapelketan lana bikain atera zen, perfektu, baina Espainiakoan akats edo gauzatxoaren batzuk izan genituen. Sentsazio horrekin geratu ginen, lana bikain eginez gero oraindik gorago sailka gintezkeela. Baina ezin gara kexatu, inola ere ez. Ezin duzu zerekin aurkituko zaren aurreikusitako zerekin behar den eta gainontzeko taldeen maila zein den jakin. Gure gimnastek entrenamenduetan egindako lana erakutsi zuten, argi eta garbi. Ez genuen 30 talde hoberenen artean sailkatzea espero. Goian gaude, eta hori sekulakoa da, bultzada handia. Oso pozik gaude" aitortu du Agirrek. Orain arte Espainiako Txapelketan lortutako posturik hoberena izan da. "Joan zen urtean 56. postuan sailkatu ginen, eta aurten 29. Emozioz betetako eguna izan zen".

Aurreikusitako moduan, faboritoen artean erabaki zen txapelketa. Vallecasken irabazi zuen, Tenerifeko Batistana taldearen aurretik.

Ideiak hartu

Emaitza jakiteko gauera arte itxaron behar izan zuten Iskizakoek, eta talde guztiek egindako lanez gozatu zuten. Halako txapelketak ideia berriak hartzeko ezinbestekoak dira, irakasleendako batez ere. "Ikasteko, ideiak hartzeko, musika eta doinu berriak ezagutzeko... primerakoak dira". Ostegunetik larunbatera Oinarrizko Taldeen Espainiako Txapelketa jokatu zen, eta igandean maila absolutuko Espainiako Kopa. "Inten-

"NAFARROA ARENAN GERTUKOEN BEROTASUNA GEHIAGO SENTITU GENUEN"
OLAIA AGIRRE

tsitate handiko astea izan da, txapelketa ia guztia jarraitu baitugu, bai Nafarroa Arenan, eta baita etxean ere, streaming bidez txapelketa jarrai zitekeelako. Makina bat ordu sartu ditugu".

Iskizakoak "nekatuta, baina pozik" daude. "Batxilergoan eta Unibertsitatean ikasten dute, eta horrenbeste ordu entrenatzea esfortzu handia da beraiendako. Beraz, egindako lanak emaitza ona izatea ongi dago".

Zerotik hastera

2023ko denboraldia bukatu berri da, eta Iskiza Sakana taldeko arduradunak 2024 denboraldiko txapelketak prestatzen badute nahikoa lan. Olaia Agirre koordinatzailearekin batera Ainhoa Imaz, Olaia Granizo eta Maria Remolina monitorea burubelarri dabilta lanean. Araudiak jasotzen dituen aparatuekin koreografia berriak prestatu beharko dituzte. Aurten 70 gimnasta inguru trebatzen dira Iskiza Sakanan, eta Arbizuko eskolan 22 inguru. "Urtetik urtera kopuruak gora egiten du, eta pozik gaude, nola ez". Nafar Kirol Jokoetan lehiatuko diren taldeak ere aurten gehiago izango dira. "Orain arte hiru talde genituen, eta aurten bost. Eta kontuan hartu behar da iaz bi talde hirugarren mailara igo zirela. Beraz, lan handia dugu aurretik beharreko koreografiak prestatzen".

Junior taldeak orain atsedean hartuko du. "Azken hauek intentsitate handiko hilabeteak izan dira, bai fisikoki eta baita mentalki ere. Momentu guztiak bizi izan dituzte, etekina ateraz. Beraz, deskantsatzeko unea da". Bitartean, 2024 denboraldian zer egin erabaki beharko dute, apirilko Nafarroako Banakako Txapelketara edo maiatzeko Nafarroako Taldeko Txapelketara aurkeztuko diren zehaztu.

Gabonetako erakustaldia

Iskizako talde guztiek Gabonetako erakustaldian parte hartuko dute. Abenduaren 17an izanen da, igandearekin, 17:30ean, Zelandi kiroldegian.



*Gorde zerbaki hau

Kirolaririk hoberenak

Sakanako Mankomunitateak 2022 eta 2023 urteetako Sakanako kirolaririk hoberenak izendatu ditu. Sei kirolari eta bi talde saritzeaz gain, bi aipamen berezi egingo ditu abenduaren 15ean Etxarri Aranatzan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Abenduaren 15ean, 19:30ean, 2022 eta 2023 urteetako Sakanako kirolaririk onenei oroigarria eskainiko die Sakanako Mankomunitateak. Ekitaldia Etxarri Aranazko Kultur Etxean izango da, 19:30ean hasiko den ekitaldian. Guztira hamar sari banatuko dira. Batetik, adin tarte ezberdinak kontuan hartuta, banakako sei sari banatuko dira: 18 urtez azpiko, 18-35 urte bitarteko eta 35 urtetik gorako kirolari sakandar onenak, gizonak eta emakumeak. Bestetik, Sakanako talderik onena sari tuko da, eta euskara gehien sustatu duen taldea. Eta, azkenik, epaimahaiak bi aipamen berezi egitea erabaki du.

Erabaki luzea

Azaroaren 27an, astelehena, bildu zen epaimahaia, sakandarrek proposatutako kirolarien artean aukeraketa egiteko. Hautaketa argiterakoan, hainbat faktore hartu ziren kontuan: kirolarien progresioa, kirolari gisa lortutako emaitzak, bere kirola sustatzeko egindako lana, eta bes-telako hainbat faktore. Lan luzea zuten aurretik. Epaimahaiaren lana ez zen

batere erraza izan. Zorionez, makina bat kirolari daude Sakanan, kirolari asko eta onak, bai maila gorenean daudenak, eta baita maila amateurrean edo kirol herrikoian aritzen direnak ere. Guztiak dira garrantzitsuak eta guztiak dute meritua.

Azkenean, adinez adin, eta kirol ezberdinak kontuan hartuta, epaimahaiak 2022 eta 2023 urteetako Sakanako kirolaririk hoberenak hautatu zituen. Ordu eta erdi pasa behar izan zuen erabakia hartzeko. Horrela, Mikel Zufiaurre altsasuarra, Iratxe Lapuente ziordiarra, Markos Beraza irintarra, Maitane Vilariño olaztiarra eta Juan Luis Maiza eta Graciela Prado Garcia-Jove etxarriarrak dira hautatutako kirolari onenak. Taldeei dagokienez, Iskizako juniorren taldea izendatu dute talde onena, eta CBASK Altsasuko saskibaloia taldeak euskara gehien sustatu duen taldearen saria jasoko du. Bukatzeko, epaimahaiak bi aipamen berezi egingo dizkie Jesus Mari Arzari eta Imanol Erbitiri, lehenari herri kirolak sustatzeko egindako lan handiagatik, eta, bigarrenari, txirringarritza-ko ibilbidean sustatutako balioengatik.



MIKEL ZUFIAURRE ESTEVEZ 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO GIZONA

Hipikan duela lau urte inguru hasi zen zaldizko altsasuarra, eta epe laburrean salto handia egin du Mairu bere zaldiarekin elkarlanean. Berezi TREC modalitatean lehiatzen da, hiru proba dituen eta orientazioa, erresistentzia, doma eta oztopoak hartzen dituen. 2022an TREC Hipikako Espainiako Txapelketan hirugarren sailkatu zen, eta Orleansen (Frantzia) jokaturako Mundialean parte hartzeko txartela lortu zuen.

2023an Espainiako TREC Txapelketa irabazi zuen, eta Avilan jokaturako Europako Txapelketan lehiatzeko txartela lortu zuen. Nahiz eta Mairuk istripua izan, Europako brontzezko domina lortu zuten Zufiaurrek eta Mairuk, merezimendu osoz. Etorkizun handiko zaldikoa da.



IRATXE LAPUENTE PEREZ 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO EMAKUMEA

Irristalari ziordiarra txikitatik hasi zen nabarmentzen. 2018an Sakana Patin taldean zebilela Espainiako Txapelketan brontzezko domina lortu zuen 3.000 m puntuazioan, eta 2019an Lagunak taldearekin zilarrezkoa lortu zuen 500 m esprintean. 2022an eta 2023an P2P Nazioarteko Abiadura Irristaketa Maratoian, Iruñean hasi eta Garesen despiditzen den proba ikusgarrian, emakumezkoen lehen juniorra izan zen, emakumezkoen sailkapen orokorrean

zortzigarren. Bestalde, berriki jokaturako Behobia Donostian podiumera igo zen, hirugarren emakume azkarrena izan baitzen. Irristalari handia.



ISKIZA OINARRIZKO JUBENILEN TALDEA SAKANAKO TALDERIK ONENA

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko oinarrizko junior mailako taldeak hiru urte zoragarri daramatza. Olaia Agirrek entrenatzen duen taldeak Nafarroako Taldekako Txapelketa hirugarren urtez jarraian irabazi du bere kategorian, bigarren mailan, eta aurreko asteburuan Nafarroa Arenan jokaturako Espainiako Txapelketan 147 talderen artean 29. postuan sailkatu zen, orain arteko posturik onena. Jakina, honen atzean entrenamendu ordu asko daude. Aurten Ane Iturrioz, Eider Goikoetxea, Irune Etxaniz, Naroa Erdozia eta Naroa Diaz gimnastek osatzen dute jubenilen taldea.



CBASK SASKIBALOI TALDEA EUSKARA GEHIEN BULKATU DUEN TALDEA

CBASK Altsasuko Saskibaloia Klubak urte asko daramatza saskibaloia sustatzen. Egun zortzi talde ditu: benjamin mistoa, preminibasket mistoa, nesken aurreinfantila, gizonzkoen kadetea, emakumezkoen kadetea, gizonzkoen juniorra, emakumezkoen seniorra eta gizonzkoen seniorra. Iosu Mendiola da saskibaloia taldeen koordinatzaile berria eta euskara sustatzeko jarrera irmoa du klubak. Ildo honetan, zenbait aurrerapauso egin dira. Egun, taldeetako monitore gehienak euskaldunak dira, eta komunikazio gehienak elebizi egiten dira.



MARKOS BERAZA VITORIA 18-35 URTE ARTEKO GIZONA

Irañetako motor gidaria 12 urte-ekin hasi zen motor txapelketetan parte hartzen, anaien bidea segituz. Moto-krosean, cross countryan eta enduroan ibili izan da eta berehala hasi zen nabarmentzen. Aipatu hiru modalitateetan Nafarroako, Euskadiko eta zona Norterko txapelduna izan da sarritan. Zerbait urtetan txapeldunorde izan eta gero, 2022. urtean Espainiako Enduro Txapelketa irabazi zuen lehenengoz bere kategorian, Senior B mailan, lau eta erdiko KTM motorrarekin. Aurten, 2023an, titulua berri du, merezimendu

oso, txapelketak zituen bost lasterketetan (Santiago, Oliana, Lalin, Estrada eta La Torre Dóristan) gailenduta.



JUAN LUIS MAIZA **BEGIRISTAIN** 35 URTE BAINO GEHIAGOKO GIZONA

Duatleta eta triatleta etxarriar beterranoak ibilbide luze bezain oparoa darama. Lesio larri bat gaudituz eta gero, lehian hasi eta 2022an Espainiako Duatloi txapelduna izan zen bere mailan, 55 eta 59 urte arteko kategorian, eta urte berean Bilbon jokaturako Europako Duatloi Txapelketan Europako txapelduna izan zen, kategoria berean. "Europako Txapelketa lortzea kosta egin da. Poz handia da" esan zuen orduan. 2023an, atzera ere Espainiako duatloi txapelduna izan zen bere mailan, eta

Europakoan lortutako emaitzei esker 2023ko apirilean Munduko Duatloi Txapelketan parte hartu zuen, Ibizan. Bere mailako munduko bosgarren duatleta onena da.



MAITANE VILARIÑO **MENDINUETA** 18-35 URTE ARTEKO EMAKUMEA

Maitane Vilariño futbolaria 2020/2021 denboraldian hasi zen Osasunako bigarren taldean, baina denboraldi horretan bertan Osasunako talde nagusira igo zuen Kakun Mainz entrenatzaileak. Orduetik, Mainzen, eta aurten bere tokia hartu duen Josu Dominguezekin ezinbesteko jokalaria da. Osasuna lehen mailara igotzeko borrokan jarraitzen du Vilariñok. Hori da bere ametsa. Joan zen denboraldian atean gelditu ziren, eta aurten borrokan sartuta daude. Bestalde, 2022ko abenduaren

30ean Euskal Selekzioarekin debutatu zuen Vilariñok. Txileren kontra 3 eta 0 gailendu zen Euskadi, eta Vilariñok hirugarren golaren asistentzia egin zuen.



GRACIELA PRADO **GARCIA-JOVE** 35 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA

2014an istripu baten ondorioz hanka galdu zuen etxarriarrak, eta ordutik berea gaintze historia hutsa da. Errehabilitatzaile batek gomendatuta hasi zen Pole Sport kirolean, gimnasia teknika eta elementuetan oinarrituta barra batean egiten diren koreografiatan. Iruñeko Backflip eskolan trebatzen da, Amaia Belokirekin. "Pole Sporta gogorra da, kirol osoa. Dena eman dit" dio. 2023ko apirilean Portugalen jokaturako txapelketan urriaren bukaeran Polonian jokaturako IPSF (International

Pole Sports Federation) Mundialetan parte hartzeko txartela lortu zuen Gracielak. Para Pole Sport kategorian, anputaturakoen atalean, munduko txapelduna da.



JESUS MARI ARZA **BERGERANDI** AIPAMEN BEREZIA

Herri kirolean trebatzen edo lehiazten diren sakandarrek aski ongi ezagutzen dute jaiotzez iturmendiarra baina Lakuntzara ezkondu zen Jesus Mari Arza Bergerandi. Sakanan antolatzen diren herri kirol eta aizkora erakustaldi guztietan han egoten da epaile eta arbitro lanak egiten eta laguntzen. Horretaz gain, Iñigo Aritzeta eta Andra Mari ikastoleetako herri kirol taldeetako trontza irakaslea da aspalditik. "Edozein herri kirol erakustaldi edo topaketarako, Arza

deitu eta bera beti prest: egurra jaitsi eta prestatzeko prestu, ekitaldia antolatzen laguntzeko borondatez, epaile lanak egiteko prestu... denetarako prest" azaldu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Herri kirolen sustatzaile handia.



IMANOL ERBITI OLLO AIPAMEN BEREZIA

Profesionalen bere 19. denboraldia osatu duenean, guztiak eskudra berean, txirrindularitza utziko du tropelean errespetatua eta miretua den Hiriberriko talde gizon fidel eta umilak.

Palmares ikusgarria du: Frantziako hamahiru Tour, Espainiako hamabost Vuelta, Giro bat, 2016ko Rioko Olinpiar Jokoak, Munduko zortzi txapelketa eta Europako hiru, azkena, 2023ko irailaren 24an jokaturakoa. Hiru garaipen lortu ditu: 2008an eta 2010ean Vueltan lortu zituenak, eta 2011n Errioxako Itzulian lortu zuena. Bere ibilbidean jaso duen miresmena eta egunotan jasotzen ari den aitortza amaigabea da. Larunbatean omenaldia egin zioten Ermitagaña klubean, eta astelehenean Nafarroako Gobernuaren domina jaso zuen.



Naroa Otxoa, ezkerretatik hasita lehen, gainontzeko finalistekin. UTZITAKOA

Naroa Otxoa, Gipuzkoako txapelduna

PALETA GOMA Naroa Otxoak eta Leire Galdosek Kluben Arteko Gipuzkoako Lehen Mailako Txapelketa irabazi dute

Naroa Otxoa Garmendia palista etxarriarra Donostian ari da ikasketak egiten, eta, egun, Hernani du bizileku. Horregatik Gipuzkoako Kluben Arteko Lehen Mailako Paleta Goma Txapelketan hartu du parte, Hernani klubeko Leire Galdos taldekidearekin bikotea osatuta. Txapelketa bikaina eginda, azaroaren 26an Tolosako Beotibarren jokatuko den final handirako sailkatu zen. Finalean, Hernani klubeko bere taldekide Garazi Eizmendi eta Enara Mazizior izan zituzten aurkari. Partida gogor eta lehiatua, Otxoa eta Galdos

aldea ateratzen hasi ziren, eta, azkenean, Gipuzkoako Kluben Arteko txapela janztea lortu zuten, 30 eta 20 irabazita.

Orain, Sakanan

Naroa Otxoa Sakanako Pala Txapelketan murgilduko da. Joan zen urtean Enara Maziziorrekin bikotea osatuta 2022ko lehen mailako Sakanako Txapelketa irabazi zuen. Aurten elite mailara igo da eta Haizearekin osatu du bikoia. Abenduaren 3an sartuko dira lehian, 11:00etan, Etxarrin, Espinalen eta Ardanzaren kontra.



UTZITAKOA

Helburua, lortuta

AUTOMOBILISMOA Azaroaren 25ean jokatutako Malerrekako Rallyak Nafarroako Asfaltoko Rally Txapelketa erabaki zuen. Iker Askargorta pilotuak eta Iñigo Galarza kopilotuak (Opel Astra) helburua lortu zuten: txapelketako hirugarren postuari eustea. Askargortak 129 puntu lortu ditu pilotuen sailkapenean, eta Galarzak 138,5 puntu kopilotuen sailkapenean.



2023ko Kirol Merituaren dominak jaso zituztenak, Ioseba Fernandez, Imanol Erbiti eta Javier Andueza tartean. NAFARROAKO GOBERNUA

"Sorpresaz, ilusioz eta eskertuta" jaso du urrea

Ioseba Fernandez irristatzaile ohi iturmendiarrak Nafarroako Kirol Merituaren Urrezko Domina jaso zuen Maria Chiviteren eskuetatik. Halaber, Imanol Erbitik Zilarrezko Domina jaso zuen, eta Lagun Artea Futbol Taldeko Javier Anduezak Zilarrezko Domina

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Nafarroako Jauregiko Tronuaren Gelan egindako ekitaldian, eta Maria Chivite presidentea buru zela, banatu ziren Nafarroako Gobernuaren Kirol Merituaren dominak. Ioseba Fernandez Fernandez irristalari ohi iturmendiarrak Urrezko Domina jaso zuen, "irristaketan izandako ibilbide arrakastatsu eta distiratsuaengatik, irristaketan legenda izateagatik eta etengabe gaintzeko grinaren adibide izateagatik", Chiviteren hitzetan.

Ioseba Fernandezek aitortu zuen "sorpresa pozgarria" hartu zuela izendapenaren berri izate-rakoan, 2021ean Munduko Txapelketa irabazi eta gero erretiratu baitzen. "Ez nuen espero nitaz oroituko zirenik. Aitortu beharra dut ilusioa ere piztu zitzaidala". Berarendako "urte luzez egindako lanaren saria" izan da izendapena, "bizitza guztia kirolari eskaini izanagatik jasotako aitortza berezia, kirolari baten esfortzua saritzen duelako".

Iturmendiko irristatzaileak bere emazte Ana Llorens atleta eta gimnasta, eta euren seme Marc izan zituen alboan. Bere ibilbidean alboan izandako Carmelo Paniagua, Nafarroako eta Espainiako Irriestaketa Federazioko presidentea, eta Esteban Gorostiaga prestatzailea gogoan izan zituen, eta baita ere bere gurasoak, Jose Luis Fernandez eta Itxaso Fernandez.

Palmares ikusgarria

Kolonbian 2021eko azaroaren 11n Munduko Abiadura Irriestaketa Txapelketan 100 metroko lasterketa irabazita, 32 urterekin eliteko irriestaketa utzi zuen Ioseba Fernandezek, gorenean zegoela. Palmares ikusgarria du: Mun-

"URTE LUZEZ EGINDAKO LANAREN SARIA IZAN DA IZENDAPENA"

IOSEBA FERNANDEZ

duko Txapelketetan urrezko bost domina, zilarrezko sei eta bronzetzeko sei; Europako Txapelketetan hamazazpi titulu; eta Espainiako Txapelketan 32 aldiz txapeldun izan da. Munduko errekorrak ezarri ditu, tartean, 2019an, Marbellan, 100 metrotan 9.55 segundokoa. 2012 urtetik ez zen Munduko podiumetik jaitsi, bere ibilbideari agur esan arte. Patinak zintzilikatuta, suhiltzaile plaza atera du.

Imanol Erbiti eta Javier Andueza

Txirrindularitzatik erretiroa hartu berri duen Imanol Erbiti Ollok zilarrezko domina jaso zuen, bere ibilbideari egindako aitortza. Hiriberrikoa eskertuta zegoen. "Niretako kirola joko bat izan da; jendeak babesten zaituela ikustea eta bero hori jasotzea oso polita izan da" azaldu zuen. Bestalde, 25 urtez baino gehiago kirola sustatzeagatik zilarrezko domina jaso zuen Lakuntzako Lagun Artea Futbol Taldeko Javier Andueza Artiedak.



Joxe Aldasoro etxarriarra 'Heldu da kontua' lehiaketaren aurkezpenean. UTZITAKO

"Etxarriko saioko ariketa bereziki landu dut"

JOXE ALDASORO BAKARRIZKETARIA ETA IPUIN KONTALARIA

Abenduaren 7an Irurtzunen helduendako ipuin kontakizuna eginen du, eta abenduaren 15ean, Etxarri Aranatzen, bakarrizketa saiorako "sold-out" aurreikusten du

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Irailean Heldu da kontua II. Helduendako Kontalaritza Sorkuntza Sariak banatu zituzten Arrasaten, eta Joxe Aldasoro idazle etxarriarra *Mingots eta Languarratik* lanarengatik saritua izan zen, Dorleta Kortazarren *Ispiluak* lanarekin batera. Saridunek helduendako Euskal Kontakizun Zirkuituan parte hartzeko aukera izan dute. Abenduaren 7an, osteguna, 19:00etan, Aldasoro Irurtzungo Pikuxarren izanena da, Aizpea euskal taldeak anto-

latutako Euskal Ekitaldiak programaren barruan, helduendako ipuin kontakizun saio bat eginez. Idazmena eta ipuin kontalaritza duela bi urte inguru bakarrizketekin ere uztartzen ditu Aldasorok, eta abenduaren 15ean,

"PLANTEAMENDUA DA: PERTSONA BAT MIKRO BATEKIN ESZENATOKI BATEAN BARRE EGINARAZTEN"

ostirala, 22:00etan, *Zurrapapote* saioa eginen du Etxarri Aranatzko kultur etxean.

'Barre Librea' saioan hasi zinen bakarrizketalari. Nolakoak izan ziren hasierak?

Antzerkia ikasten neramatzan urte batzuk, eta bakarrizketa ikastaro baten iragarkia ikusi nuen, Gasteizen. Pandemia garaia zen. Ikastaroa bukatzen zen jendaurreko batekin, ezin izan genuen egin. Materiala banuen eta kointziditu zuen *Barre Libreak*-en aukera eman zutela zaletuek

parte hartzeko. Bideoa bidali, kastina egin eta, ondoren, grabazioa. Hiru minututan hiru txiste moztu zizkidaten. Halaxe nire debuta.

Zer gai jorratuko dituzu Etxarriko saioan?

Gaiak denetarikoak izango dira. Euskara, irakaskuntza, kirola, aisialdia, politika, erlijioa... Gehiago zehaztea *spoillerra* egitea litzateke. Gainera, egunean bertan, altxatzen naizen umorearen arabera, ozpindua ala are ozpinduagoa, gairen bat sartzea erabaki dezaket eta, beraz, beste bat kentzea.

Zer da bakarrizketa bat?

Bakarrizketa mota asko dago. Azken urteetan *stand up* deiturikoak bizi du loraldia; ni egiten saiatzen ari naizena. Planteamendua oso sinplea da: pertsona bat mikro batekin eszenatoki baten gainean barre eginarazten. Barreak ateratzen baditu, ona; bestela, txarra. Barre eginaraztea zaila egiten zait, batzuek berezkoa dute abildadea. Herri guztietan, kuadrilletan, badaude halako fitxajeak. Nire prozesua halaxe izaten da: gaia aukeratu, idatzi eta idatzitakoa behin eta berriro orraztu txisteak ateratzeko eta fintzeko. Horretarako ere badaude teknika batzuk: hirukoen erregela, *call-back*-a...

Nola prestatzen dituzu? Inprobisaziorako tokia dago?

Inprobisaziorako gaitasuna bakarrizketari onek badute, nik mugatua dut ahalmen hori. Motza dena, motza da. Horregatik da hain garrantzitsua nire kasuan aurreko prestaketa. Gertatu izan zait saioa erdi parean utzi behar izatea txisteek funtzionatzen ez zutelako. Nire irakasleak esaten zuen bezala, inprobisazioa ere entrenatu egiten da. Klabe bat horixe da: naturaltasunaren inpresioa ematea. Gehienetan, uste duguna baino landuagoak izaten dira testu eta txisteak. Etxarriko saiorako bereziki landu dudana ariketa da. Kontuan hartuta sarreraren salmentak *sould-out*-a iragartzen dutela, barruan dudana eman beharko dut.

Bestetik, Heldu da kontua irabazi zenuen eta helduendako ipuin kon-

"ASKOTAN KONTALARIAK BAINO, ENTZULEAK ERABAKITZEN DU ZEIN DEN IPUINAREN GAIA"

talari ari zara. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Gazi-goza. Saio batzuk ondo ateratzen ari dira; beste batzuk ez hainbeste. Helduendako saioek ez dute publiko asko eta kontakizunetara, Etxarri izan ezik, jende gutxi agertu da. Bestalde, nire burua trebatzeko oso balio-garriak egiten ari zaizkit saioak. Mai Gorostiaga lehiaketaren antolatzailetako batek lagundu nau guztietan, eta bere kritikak asko laguntzen ari zaizkit.

Haurren kontakizunekin alderatuz?

Haurren zailtasuna handienetariko bat da erreazio espontanea dutela. Ipuina gustatzen ez bazaie izorratuta zaude. Hor bai inprobisatzen hasi behar; antzerkiaren bidez, beste ipuin baten bidez... Toki batzuetan euskara maila ere arazoa da: galdetu izan didate gata zer den, arotza, zurgina... Zortzi urteko haurrek. Bestalde, gero eta aditu gehiago ados dago haurren atentzio ahalmena mermatzen ari dela. Helduekin, aldiz, momentuz behintzat, edukazio minimo bat gordetzen jarraitzen dugu. Egia da somatu izan ditudala begiak ixten edo *zerarizarakontatzen* aurpegiak. Helduen kritikak, negatiboak direnean, zailagoak dira onartzeko. Haur batek berehala ahaztuko du gustatu zaion edo ez kontalaria, heldu bati ez. Ez du errepikatu, programatzailea bada ez dizu deituko.

Zer kontaktzen du zure ipuinak?

Helduen kontakietan hiru ipuin mota daude: tradizionalak, autore ipuinak eta norberak asmatutakoak. Nik autore ipuinak aukeratu ditut kontakizunerako: boterea, maitasuna, gerra, anbizioa, garapen pertsonala... Askotan, kontalariak baino, entzuleak erabakitzen du zein den ipuinaren gaia, zer hartzen duen ipuinetik. Ipuin batean, entzuleek esaten didate maitasun ipuina dela, nik beste zerbait ikusten dut. Bakoitzak bere interpretazioa du.

Nolakoak dira ipuin kontakizun saio hauek?

Ez daukate misteriorik. Orain artekoetan Maik aurkezten zuen; helburuak eta abarrak. Ondoren ni hasten naiz ipuinak kontaktzen. Bukieran solasalditxoak egiten dugu: norenak diren, zer gustatu zaien, hausnarketak, bizitzaren inguruak... Kontakietan zehar saiatuko naiz negar eta malkoak ateratzen (barrezka) eta gero denak tragoa hartzera.



UTZITAKOA

Musikarien festa

Azaroaren 22an Santa Zezilia izan zen, Musikarien eguna, eta Haize Berriak Bandak azaroaren 25ean, larunbatean, ospatu zuen haien eguna Etxarri Aranatzen, Bakaikun eta Altsasun kalejirak eginez. Egun honetan kide berrien etxetara joateko ohitura du Sakanako bandak, eta aurreko bandako kide ohiak eta instrumentu joleak gonbidatu zituzten kalejirara.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Benetan ez zaitudala gustuko

"Inoiz ez zaitut gustuko izan" dio liburu baten azalak. Oso gutxi, inork ezerk agian, ezagutuko du komiki hau. Chester Brown da liburu honen autorea. Komiki honekin konexio arraro bat izan dut betidanik. Batzuetan nitaz edo niretzat hitz egiten duela iruditu izan zaidalako. Ez dut ene autoestimua arazoengatik esaten. Ezagutzen nauzue, badakizue bikaina, majoa eta ederra naizela. Baizik eta beti ahazten dudalako zer dioen eta zertaz doan komikia.

Komiki hau hiru aldiz irakurri dut jada, lau azken aldiz hau kontatzen badugu. Askotan ikusi dut liburutegietan. Ikusten dudana aldiro "zertaz doa komiki hau?" galdetzen diot nire buruari. Inoiz irakurri ez banu bezala. Hain zakarra, aspergarria izanda nire buruak guztiz ahaztu balu bezala. Azkenean uste dut ulertu dudala zergatik.

Komikiak Chester Brownen nerabezarora eramaten gaitu. Chesterrek bere bizipenak gogoratzen dituen bezala kontatzen dizkigu. Trikimailurik gabe, bizitza den bezain latza. Teknikari dagokionez hau komikiari

ederto dator. Komikiak ez du kolorerik, beltza eta txuria besterik. Ez daude bi orrialde berdín liburu osoan. Bineta kopurua, forma eta kokapena aldatzen doa, Chesterren oroitzapenetan zehar bidaiatzen egongo bagina bezala.

Kontatzen digun historia da benetan interesgarria eta komiki honen mamia. Chesterrek institutuan bizi izandako bere lehen amodioez hitz egiten digu gehienbat. Autorea ez zen institutuko pertsona ospetsuena eta ez zuen lagun askorik. Chesterrek bere amarekin izan zuen harremanaz ere hitz egiten digu. Gai delikatu bat benetan, baina ez dut spoilerrik egingo...

Chesterrek ez du errukirik bere buruarekin. Edonori lotsa emango lioke komikian bere buruaz kontatzen dituen anekdotak kontatzea. Komikiak bizitza zeinen latza den gogorarazten dit. Zeinen tuntunak garen nerabezaroran... Horregatik, hemendik bost urtera berriro aurkituko dut komiki hau liburutegian eta bueltan esango diot komikiari, gezurra izanda ere, "nik ezta ez zaitut inoiz gustuko izan".

Txapelketa final "historikoa"

Bihar izanen da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala Iruñean. Lehenengo aldiz zortzi finalistaren artean bi etxarriar izanen dira: Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre. Txapelketan ere "lan polita" egin dute Idoia Granizo eta Ekain Alegre altsasuarrek

Urriaren 7an Iruritan hasi zen 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Viana, Uharte, Leitza, Altsasu, Agoitz eta Lesakatik pasa ondoren Iruñean amaituko da bihar, abenduak 2, larunbata, 17:00etan. 24 bertsolari hasi ziren eta lau finalaurden eta hiru finalaurdeko ondoren, zortzi igoko dira Anaitasuna kiroldegiko oholtzara: Saioa Alkaiza Guallar, Julio Soto Ezkurdia, Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martínez Boli, Josu Sanjurjo Alzuri, Saats Karasatorre Martínez eta Sarai Robles Vitas. Haien artean dago aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketaren txapela jantziko duen bertsolaria. Txapelketaren ibilbidea hasi zuten 24 bertsolarien artean lau sakandar zeuden: bi etxarriar, Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz, eta bi altsasuar, Ekain Alegre eta Idoia Granizo. Bi etxarriarrak iritsi dira finalera, Saats Karasatorre lehenengo aldiz ariko da finalean, eta Eneko Lazkozen zortzigarren finala izanen da.

Sakandarrak

Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre eta Ekain Alegreren bertso ibilbidearen lotura Joxema Leitza dela esan dute hiru bertsolariek BELEIXE IRRATIAN Eneida Carreñorekin egindako solasaldian. Eneko: "Adinagatik gutxi gorabehera hamar urteko tartea dago hiruren artean, eta aldika elkarrekin aritzea tokatu zaigu, baina Joxema hiruren eta Idoia Granizoren irakaslea izan da".

Kasualitatez, altsasuarrek elkarrekin aritu dira Txapelketan, Irurritako finalaurdenean eta Agoizko finalaurdekoan kantatu baitzuten; etxarriarrek ere elkarrekin hasi zuten bidea Leitza

laugarren eta azken finalaurdenean, baina finalaurdekoetan haien ibilbidea banandu zen eta Karasatorre Altsasuko saioan aritu zen, eta Lazkoz Lesakakoan.

Alegrek kantatzen "gustura" ibili dela esan du: "Uste nuena baino hobeki, nire mailatik gertu, hala ere, uste dut gauza gehiago ditudala erakusteko". Irurritako emaitzarekin Agoizkoarekin baino "kontentuago" gelditu zela aitortu du, "baina gero puntuak ez doaz nire sentsazioekin batera; orokorrean, pozik".

Puntuazioa ikusita norberaren buruarekin edo epaileekin haserretzen diren galdetuta, "konbinazioa" dela esan du Alegrek: "Zure hutsegiteez kontziente zara; errazena da epaileei kexatzea, baina bakoitzak egiten dituen akatsez kontziente gara, eta hori aldatzea gure esku dago". Txapelketan bertsolaria "bere buruaren kontra" lehiatzen dela, askotan errepikatzen dutela, esan du Lazkozek, "eta nik uste gehienona hala dela. Egiten dugun lehendabiziko lana gure burua epaitzea eta gure akatsak topatzea da. Seguraski, hobetzeko bidea hori da; gaizki egin duzuna topatu eta hobetzen saiatu". Jasotako puntuazioak ez baldin badu norberaren helburuak lortzeko balio, "beti topatzen duzu epaileei kulpa botatzeko bidea".

Leitzan "izugarri" sufritu zuela aitortu du Karasatorrek: "Kontzentratzea kostatu zitzaidan, han egotea, ez dakit urduritasu-

TXAPELKETAN "ARLO EMOZIONALA" ETA "DESKONEKTATZEA" GARRANTZITSUA DELA ESAN DUTE

na zen, tentsioa... Giroa tentsioa zegoen, bakoitzak izango zuen berea, baina ikaragarri sufritu nuen". Gero ez zen horren "desastrea" izan. Lazkozendako lehenengo saioa beti "nahiko gogorra" izaten dela esan du. "Jendearen aurrean hilabete eta erdi edo bi hilabete neraman, eta txapelketan kantatu gabe urte bat. Saio horretan beti beldurrak eta zalantzak daukazku". Gainera, faseko azken saioa izan zen, "eta horrek giroan eta animoan eragiten du jendeak aurreko saioetako puntuazioak badakizkielako". Bakoitzak berea egin behar duela azaldu du, "eta horretan pentsatu".

Bertsoz bertso

Altsasun "beste sentsazio batzuk" zituen Karasatorrek: "Lasaia nongoen, oso kontzentratuta; uste dut Altsasun ohar-tu nintzela, txapelketa honetan ohar-tu naizela, alderdi emozionalak zer pisu daukan txapelketan". Orain arte "bertsotan aritzea eta puntu" zela iruditzen zitzaion etxarriarrari, "baina puxka handi bat urduritasuna kudeatzea, egoeran bertan jartzeta, bertsoz bertso joatea da; hau pasata zortziko txikia dator, heldu". Atsedean hartzea ere garrantzitsua dela ohar-tu da, tarte batez besteen bertsoak "ez aditza".

"Lortzen da, eta garrantzitsua da. Deskonektatzea eta saioaz pixka bat ahaztea ongi dator. Denbora guztian pentsatzen baldin bazaude zerbait erdipurdi egin duzula, eta besteak oso ongi egiten ari direla...". Alderdi emozionala oso garrantzitsua dela uste du Alegrek, eta bakoitzak egiten duenarekin "zentratzea eta horrekin joatea" hobereena dela gaineratu du. "Agian batzuei

gehiago kostatzen zaie, baina lortu behar da".

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean bi etxarriar ez direla inoiz egon esan du Lazkozek, "eta historikoa da". Txapelketan lau bertsolari sakandar egotea "baloratzekoa" dela gaineratu du, "finalaurrekoetan egotea eta maila ona ematen. Ekain eta Idoia ez dira finalera pasa, baina aurreko txapelketatik uste dut salto polita eman dutela". Bertsolaritzak "bakarkako" lanetik asko duela esan du, "eta ez gara eremu oso bertsozalean bizi", horregatik ere baloratzekoa da altsasuarrek egindako lana. "Ea honen harrera gaztetxoaren artean zerbait pizten den".

Emozioa

Karasatorre Lakuntzako eta Altsasuko bertso eskolen irakaslea da, eta laster eskolako eta ikastolako haurrekin ere bertso eskolak emanen ditu, eta finalarekin haurrak "oso motibatuta" ikusten ditu; "aukerak ikusten ditu". "Boli eta biok eta Ekain eta Idoia hor egoteak eragin du, nahiko engantxatuta ikusten ditut". Sakana mailan bertso saio gehiago antolatu behar direla aldarrikatu du, "nik uste horrek ere zerbait ekarriko duela, eta horren aldarrikapena egin behar dugu". Bertsolariek beraiek saioak antolatzen dituzte, baina udaletatik ere antolatu beharko lituzketela esan du: "Berez nahiko erraza da, udal batendako, beste gauza batzuekin alderatuta, erraza eta merke da bertso saio bat antolatzea". Lazkozen iritziz beherakada bat egon da azken urteetan, "lehen herri gehienetako festetan saioak egiten dira, eta jaitsi egin da hori".

Sakanan gehiago kantatzea eskertuko luketela jarraitu du Karasatorrek: "Herriko festetan saio bat baldin badago, gaztetxoak ikustera joaten dira, hor ikusten dituzu bertsolariak, eta hori hor gelditzen da eta metatzen joaten da". Alegre iritzi berekoa da: "Ez badituzu ikusten ez duzu erreferenterik. Altsasun egiten diren saio bakarrak txapelketakoak dira, horrela tokatu da azken bi urteetan, baina igual ez dugu beste saiorik bi urtera arte". Txapelketan bi bertsolari altsasuar eta finalean bi etxarriar dauden arren, kalean ez dela "erakusten" salatu du altsasuarrek. "Altsasuko saioa bete zen,



Eneko Lazkoz Martinez Lesakako finalaurrekoan. JOSU SANTESTEBAN / NBE



Saats Karasatorre, eskuinean, Altsasuko finalaurrekoan. JOSU SANTESTEBAN / NBE



Eskuinetik, Ekain Alegre eta Idoia Granizo Agoizko finalaurrekoan. J. SANTESTEBAN / NBE

eta Etxarrin bertso saioak egiten dira, baina beste herrietan ez dira apenas egiten". Etxarrin "zortea" dutela esan du Karasatorrek, udalaren aldetik bertsolaritzarako jarrera dagoelako: "Bi saio potente antolatzen dira".

"SEKULA BAINO JENDE GEHIAGO DAGO TXAPELA IRABAZ DEZAKEENA" ENEKO LAZKOZ

Bertso saioen bidez zaletasuna "pizten" dela esan du Lazkozek: "Duela pare bat urte gaztetxean bertso afari bat antolatu genuen eta gazte batzuen artean bertsozarako zaletasuna piztu zen, saioetara hurbiltzen dira". Urdaingo gaztetxean aurreko urtean antolatu zuten bertso saioak antzeko eragina izan zuela esan du Alegrek: "Jendea flipatzen atera zen oso polita izan zelako; azkenean, ez baduzu inoiz bertsoan ikusi eta saio on bat ikusten duzunean, gehiago nahi duzu". Baina gero ez daude gehiago. Horretan haiek ere "ardura pixka bat" dutela gaineratu du Lazkozek, "antolatu beharko ditugu".

Finalaren bidean

Txapelketarako prestaketetan Alegre "pixka bat dispertso" aritu dela esan du altsasuarrek. Bilbon ikasten ari da eta Deustuko "jendearekin" elkartzen ari dela esan du, "hiru pertsona aritu gara Nafarroako eta Bizkaiko txapelketak prestatzen". Egun batzuk Barañainera ere joan dela esan du, "asteburuetan". Aurretik Irurtzunen taldetxo bat biltzen zen, Granizo barne, "baina astean zehar gelditzen dira eta ezinezkoa zait". Etxarriarrak "eskuz esku" aritu direla esan du Lazkozek; "Leitzara eskapada pare bat ere egin ditut". Karasatorre ere Josu Sanjurjorekin eta Saioa Alkaizarekin aritu dela esan du. "Baina gure artean egoten gara". Topaketak aurretik gelditu gabe prestatzen dituztela esan du, "egun batetik bestera gelditzeko esaten dugu". Horretan ere "inprobisatzen" dutela gaineratu du Lazkozek.

Nola irudikatzen dute finala? "Boliaren lehenengo aholkua izan zen Anaitasunako (aurreko urteetako finaletako) bideoak ikustea. Bideo horretan irudikatzen dut nire burua". Bideoak "gustura" ikusten ari dela esan du Karasatorrek, "dezente ikasten ari naiz. Saio gehienetan egon naiz, baina beste ikuspuntu batetik ikusten ari naiz orain". Funtzionatu duela esan dio Lazkozi. "Inportantea da zure burua han topatzea, zer tokitan egon behar zaren pentsatzea. Bestela, plazak jaten zaitu eta ez diozu bueltarik ematen". Alegrerendako ere aholku ona da: "Askotan badakizu non kantatuko duzun eta ongi dator. Bestela, kokatzea, 2000 pertsonaren aurrean egotea...



*Gorde zerbait hau

Zer egingo dut nik pentsa dezakezu".

Finalaren egunean, goizean, Lazkoz Anaitasunara joan izan da, "aulkiak jarrita ikusi geroko momentu horretan sorpresarik ez hartzeko laguntzen du". Bertsolari bakoitzak bere moduak dituela esan du, "beste batek agian ez du aurretik ikusi ere egin nahi". Zortzigarren finala izanda, "ikusita daukat pixka bat zer den hori. Baina egia da aste hau eta aurrekoa nahiko xelebreak izaten direla. Egin behar dituzun gauzak ahaztu egiten zaizkizu". Burua "beste gauza batzuetan" egotearen ordaina: "Askotan zure burua oholztan imajinatzen duzu". Aurreko lan hori "nahi gabe" egiten dela gaineratu du Lazkozek.

Txapelduna?

"Aurrekoan hizketan egon ginen eta uste dut sekula baino jende gehiago dagoela txapela ustez txapela irabaz dezakeena". Finaletik "edozer gauza" atera daitekeela esan du Lazkozek. "Ikusiko dugu. Badakigu bidea zein den, bertsoz bertso joan eta bat ona bota baduzu, bestea hobe botatzen saiatu". Lazkozek Karasatorrek finalera iristeko "gaitasuna" zeukala bazekien, txantxetan: "bestela ez nuen denborarik galduko aholkuak ematen". Gauzak ongi atera zitzaizkiola gaineratu du etxarriarrak: "Gero lortzerik zuen ez da erraza kompetentzia handia delako. Batzuetan nahiz eta gauzak ongi egin besteek hobeki egiten dute. Ahalmena bai". Alegrerendako, aldiz, Karasatorrerren sailkapena, "sorpresa" bat izan zen. Karasatorre: "Egia da eguna dela, gauza asko tokatu daitezke, baina horrela gertatu zen, eta begira. Uste dut Altsasun baino hobeki egin dezakedala".

Finala "oso gogorra eta nekagarria" dela esan du Lazkozek, baina disfrutatzea joanen direla. "Ez bagenu disfrutatuko ez genukeen hor egotea helburu bezala edukiko". Buru eta gorputz esfortzua dela gaineratu du Karasatorrek, "ohatzean sartu eta burua hor dago lanean oraindik". Maila hoberenetik gertu egotea espero dute.



"Posible da sistema guztiz eraldatzea"

Dulantzi Lopetegi lakuntzarrak duela bi urte ezagutu zituen pardel berrerabilgarriak, eta ontasunekin mirestuta beraien erabilera sustatzeko alokairu proiektua du buruan. Sakanako Mankomunitateko Hondakinen zerbitzuaren bitartez hitzaldia eman zuen

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Noiz hasi zinen pardel berrerabilgarriak erabiltzen?

Nik erabili izan ditut bi urtez, nire umearekin. Alai jaioberrria zenean ez nituen erosi inbertsioa handia zelako denbora gutxirako, eta zuzenean handiagoak erosi nituen, sei hilabete zituenetik bi urtera arte erabili izan ditu. Neurri desberdinak daude, eta txikitu eta handitu ere egin daitezke. Orain alokairu sistema bat jartzeko proiektua garatzen ari naiz.

2 Nolakoak dira?

Oinarrizko printzipio bat dute eta da xurgatzaile bat eta estalki bat dutela. Badira batzuk denak bat deitzen direnak, biak elkarrekin daudenak, xurgatzailea barruan sartzen dena, baina lotuta daudenak; eta beste batzuk bananduta daude eta absorbenteak alda daitezke. Hori da oinarria. Mota eta marka asko daude; badira batzuk oihaal bat direnak eta pintze-kin hartzen direnak...

3 Nola erabiltzen dira?

Nik aukeratu nituen betiko erabilera bakarrekoak bezalakoak direnak, antzeko sistema dute. Erabiltzen duzu, aldatzen duzu eta garbitzeko ontzira botatzen duzu, eta beste bat hartzen duzu.

4 Zenbat izatea da gomendagarria?

Umearen arabera; umeak behar dituen aldaketen arabera izaten da. Pardel hauek ezin dira hiru egun baino gehiago garbitu gabe egon, orduan, bi egunetarako pardelak izatea da gomendagarria; hamabost edo hogeitaz pardelekin nahiko izaten da.

5 Zeintzuk dira abantailak?

Alde batetik, ez dituztela produktu toxikoak. Badakizu zure umeak ipurdian zer daukan, era-



Dulantzi Lopetegi pardel berrerabilgarriekin.

bilera bakarrekoekin ez dakizulako oso ondo zer kimiko dituen hainbeste xurgatzeko. Bestetik, hondakin gutxiago sortzen duzula. Txoke handia eman zidan egunero poltsa bat beteta atera behar izateak.

6 Garbitzeko zerbait behar dute?

Bai. Perfumeek adibidez ez diete ongi egiten, perfume partikulak fibra tartean gera daitezke-lako eta erreazioa egin dezakete. Detergente gomendagarri batzuk daude konposizio berezia behar dutelako. Baina garbigailuan garbitzen dira; aurretik urberritzea egin behar zaie garbiketara programa motzenez eta ur hotzarekin eta gero 40 edo 60 graduko programa batekin garbitu.

7 Desabantailak?

Denok ezagutzen ditugu haurren kakak. Jaioberrienak normalean uretan disolbagarriak dira eta ez dute ezer berezirik

behar, baina janariarekin hasten direnean pardelean forru biodegradagarri bat jarri behar da eta bertan plasta gelditzen da, nolabait esateko, hartu eta komunetik bota daiteke. Hori desatsegina izan daiteke; kaka gehiago manipulatu duzula. Hasieran eragozpen gehiago ematen dizu, baina gero zerbait normalizat jotzen duzu..

8 Eta haur eskolan erabiltzeko?

Kattukan egin genuen solasaldia prestatzeko Kataluniako marka batekin kontaktatu nuen eta horien bidez jakin nuen bertako haur eskola batean bi urte daramatzatela erabiltzen. Eskolan berrerabilgarriak erabiltzen dituzte, haiek garbitzen dituzte eta dena egiten dute. Hasieran hasi ziren haurra etxera pardel berrerabilgarriekin ateratzen eta familiek etxean kendu eta poltsa batean hurrengo egunean eraman behar zituzten. Konturatu ziren batzuk ez zutela manipulatu nahi, eta

erabaki zutenak erabilera bakarrekoekin aterako zela.

9 Zenbatetik behin aldatu behar dira?

Neurriak daude, jaioberritik. Umearen tamainaren arabera da. Nik bi urtez erabili izan ditut, ez dakit zenbat garbiketara jaso dituzten eta oraindik erabiltzeko daude. Pixa kontrolatzen ari direnerako eroso jaisteko eta igotzeko ere badira. Gama handi bat dago. Posible da guztiz eraldatzea.

10 Inbertsioak merezi du?

Kalkulua egin nuen eta haur bateko hiru urtez marka estandar bateko pardelak erosita, bakoitza 0,27 zentimotan, 2.500 euro inguru gastatzen dira. Nik 600 euroko inbertsioa egin nuen eta bi urtez

erabili ditut. Jendeak dio ura edo elektrizitatea gastaten dela, eta nire analisiaren arabera ez nuen askoz gehiago nabaritu.

11 Alokairu sistema bat garatzen ari zara.

Zer forma eman pentsatzen ari naiz. Esperientziak badaude, adibidez Valentziako neska batek egiten du. Hilabete bat eta bost tarteko epean alokatzen ditu proba bezala, eta gero familiak erabakitzen du uzten edo erosten dituen. Nire ideia da sistema batean sartzea. Ez bakarrik pardeletan inbertsioa egitea, jakin behar duzu zertan datzan, eta arazoak sortzen badira norbait egon behar da. Momentuz onda-re.ak@gmail.com eposta martxan jarri duzu.

Eman HEGALAK irudimenari

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1 Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus